



GOIERRITARRA



**Desfileak, erakusketak
prozesioak...**

Arg.: M. Albisu

**ARGAZKI HANDIAK
PREZIO BERDINA**

13X16zm-ko ARGAZKIAK
10X15zm-ko PREZIOAN

**ZERBITZU
HAUEK BERTAN
ETA EGUNEAN**

**ETA GAINERA
ERREBELATZEAN
INDEX-A OPARI**



Goen

Nagusia, 6 ORDIZIA

FOTOETXE

Nafarroa Etorb., 25 BEASAIN

Foto IBILTARIA

Aste Santuan
edonora joanda ere,
errebelatu itzazu
zure argazkiak
kalitaterik
onenarekin

Errebelatuetan kalitate onena



GEMA M. ARRUGAETA

Argazkilari profesionala

Elkano, 8 (Asto Kale)

DAVID MONTERO ARRUGAETA

Bideo eta T.B.-n espezialdutako teknikaria

☎/faxa: 16 22 64

ORDIZIA

II. GALA KOMERTZIALA

ORDIZIA
martxoak 28 - 29
MAJORI kiroldegia

**MERKATARITZA
FERI HAUNDIENA**

**Gremio guztiak
standetan
ordezkatuak**

**Bi moda
desfile**

**Emanaldiak
Ileapaintze
erakustaldiak**

ORDIZIAN Elkarteak antolatutik



EUSKO JAURLARITZA



MERKATARI BAZKUNDEA



ORDIZIAKO UDALA



+ GURUTZE GORRIA

EL DIARIO VASCO

1. OLANO ZERAMIKAK
2. CARRION ELEKTRAGAILUAK
3. OTANO ZAPATADENDA
4. PALOMO CONFECCION
5. PALOMO HOGAR
6. I.M. DISEINU GRAFIKOA
7. DOMINGUEZ ASESORIA
8. COMERCIAL GOIERRI
9. VICUNA SPORT
10. GOIERRI ITURGINTZA
11. MUNDUATE ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
12. AUSOEGI
13. TUS PIES OINETAKOAK
14. CUESTA HOGAR
15. OSASUN DIETETIKA - ZABALE DIETETIKA
16. GARIN OKINDEGIA
17. ARRIETA DROGERIA
18. EZKURRA ATEAK
19. GANBARA
20. KIXMI OPARIK
21. OTEGUI
22. VICUNA CONFECCION
23. PORFIRIO FERNANDEZ (SASTRE)
24. HIDALGO BITXITEGIA-ERLOJUTEGIA
25. ARANTXA MERTZERIA
26. TAMAYO PAPERTEGIA-CREHUET BITXITEGIA
27. IRURENA MERTZERIA
28. LEKUONA OIHALAK-ZIPI ZAPE
29. BELEN OPARIK
30. SUQUIA ELEKTRAGAILUAK
31. BIÑASPRE LURRINDEGIA-OPARIK
32. ARANA POLTSAK-OSKI OINETAKOAK
33. FOTO GOEN
34. AXOLA JANTZIDENDA
35. ORDIZIA GORAZDE
36. E. GUERRERO ANTIKUARIOAK
37. OSTALARITZA
38. PRENTSA ARETOA

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre
Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Koldo Urrestarazu, Ederne Albi-
zu, Josune Aldabe, Aitziber Mu-
rua, Rufino Iraola, Abiadura Han-
diko Trenaren Aurkako Asanbla-
da eta Etor Mendia.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.900 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Ordiziako II. Akordeoi
txapelketa apirilaren 4an**

Marxoaren 14an kanpora-
keta saioak jokatu ondo-
ren, apirilaren 4an izango
da Ordiziako II. Akordeoi
txapelketaren finala. 7 tal-
de aurkeztu dira lehiaketa-
ra eta 6 izango dira finale-
an.

Akordeoi oinarri har-
tuta, taldeak bultzatu nahi
izan dituzte Larrun Arri el-
karte antolatzailekoek. Talde
lanarekin batera, musika
klasikoaren gaine-
tik, musika herrikoia sus-
pertu nahi dute.

Epaimahaia Aitor Fu-
rundurana ordiziarak, Jon
Ander Larrañaga tolosa-
rrak eta Iñaki Alberdi gita-
rrajoleak osatzen zuten. Hauek
dira finalerako sail-
katu diren taldeak: Lasar-
teko Jokin Goenaga; Bera-

ko Mikel Urtxegi; Irungo
Artizar Susperregi; Beras-
tegiko Nerea Labaien; An-
doaingo Susana Cencillo;
eta Beasaingo David Fer-
nandez eta Eneko de la
Fuente.

Beasaingo taldea 6 la-
gunek osatzen dute. Bi soi-
nujole dituen talde bakarra
da. Musika irlandesa jo-
tzen dute.

Majori kiroldegian
izango da finala. ETBko
kamarek zuzenean graba-
tuko dute saioa. Sari ugari
izango da. Irabazlearentzat
150.000 pezeta; bigarrena-
rentzat 100.000; eta beste-
ei 25.000na mila pezeta. Pi-
gini akordeoi etxeak mi-
lioierdia balio duen akor-
deoi emango omen du.

BOTA BERTSOA



Jon Aiestaran
(Goierriko bertso-eskolako
ikasle ohia)

Iparra-Hegoa

*Doinua: hamarreko
nagusiko edozein*

Hil honetako hogeitaseitk
hogeitabatez bitarte
ez zaitezte ibili zopa
jaleengandik aparte
oraingo hontan iparralde
hego aldera dakarte;
ipar orratza Seguran jarri
ta guztiok hartu parte
hego orratzak etxeratzeko
ordua ipini arte.

Norbaitek zion euskera gabe
hau Euskadi arrotza;
ta hau horrela gertatu ez dadin
Segura seguru doa
hizkuntza ezezik, dantzak ta ohiturak
ta herriaren geroa
sendotu asmoz emango dute
hirugarrenengo pausoa
naparroako kate(e)kin lotuz
iparra eta hegoa.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Martxoaren 5ean, Ordizian bildu ohi den Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak eta EHNE nekazal sindikatuak jende ugari batu zuen. Deialdia batik bat baserritarrei luzatu zitzairen.

HITZALDI informatiboaren helburua Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa dela eta mehatxupear dagoen giza sektore bat, baserritarrena alegia, jakinaren gainean jartzea zen. "Sekretismoa eta informazio eza" gailendu nahian AHTren Aurkako Asanbladako bi lagun (Dani eta Josu) eta EHNE sindikatuko bat (Marta) jardun ziren hizlari.

BILKURARA agertu zen jendetzak buru-belarri jarraitu zuen saioa. Gualdeko logaleak bat-batean egin zuen ihes, Martaren ahots tinko, sarkorrak lehen adierazpen eta argibideak gorpuzten zituen heinean. Martak EHNE sindikatuko kide bezala, trenak baserri girora ekarriko litzukeen kalteak aipatu zituen, itzelezko kalte konponezinak. Bere hitzetan, "letxugak ere landatu ezinik geratuko gara, trenaren goialdetik, baserrien artetik, igaroko baita eta ez hirigunetatik". Aipatu beharrekoa da letxuga falta ez dela egite anekdotiko isolatua izango; aitzitik, aipatutako gabezia baserri gabe geratu izanaren ondorio zuzenetako bat baino ez da izango. Izan ere, Goierri ttipiari gagozkiolarik, makina bat baserri botako da guztion kalterako eta hau gutxi balitz baserri kopuru handia ilunbean aurkituko da ezinbestean, AHTaren hurbiltasunaz amenazatua. Nolanahi ere, ez pentsa buruhauste guztiak trazaketaren eraikitzearekin harremanatzen direnik. Martaren esanetan, trenaren trafikoak berak ere sortuko babilutzeke ezegokitasun eta ezbeharrak. Aipagarrienak trenari berezkoa zaion eta etengabe igortzen duen elektromagnetismotik eratorriak dira. "Sinesgaitza dirudien arren, ikerketa batzuen arabera gizakiarengan minbizia eta ganaduarengan gaitz asko sor omen ditzake".

ABIADURA HANDIKO TRENAREN Aurkako Asanbladako ordezkari gisa Josuk, "AHTaren proiektua garapen eredu jakin baten barnean" kokatu eta ulertu behar dela adierazi zuen. "Garapen eredu honen helburua epe laburrean ahalik eta etekin gehien ekoiztea da, kapital metaketa ahalik eta handiena izan dadin". Jo-

Abiadura Handiko Trena aztergai

suk esandakoaren arabera "Abiadura Handiko Trena Itoitz, Bilboko superportua eta antzerako egitasmoekin harremanatzen da. Izan ere, proiektu hauek guztiak globalidade beraren osagarri dira. Asanbladak trenaren egitasmoa gaitzestean garapen eredu honen ezarpena eta etengabeko prozesu globalizatzailea gaitzetsi nahi du. Guk ez dugu sekula trenaren trazaketari dagokionean alternatiba edo ibilbide egokiagorik aurkeztuko, gure xedea proiektu hau eta honen kideak bertan behera utz daitezela baita. Gure helburu nagusia galbidea ekiditea da, ez

"Aktibitate ekonomiko eta politikoa hirietan pilatuko litzateke, herriak baztertuz eta gizartearen desitxuratuz"

galbide 'egokiagoa' aurkitzea". Bilkuran behin eta berriz errepikatu zen galbideak hondamen izugarriak islatzen dituela. Esaterako, "kultura txikiaren ezabatzea, 1. sektorearen desagerpena..." Azpimarkatu beharrekoa da halaber AHTak sortuko lukeen "lurralde desoreka". Betiere Josuren esanetan, "aktibitate ekonomiko eta politikoa hirietan pilatuko litzateke, herriak baztertuz eta gizartearen desitxuratuz. Erabaki guztiak diren eta izango diren hiriak geroz eta urrunago egongo dira gugandik eta baita herriak ere elkarrengandik", Abiadura Handiko Trenaz hiriburuak lotu nahi diren artean, herriarteko trenaren ohiko zenbait geltoki baztertzen ari baitira (ikus Itsasondo, Ormaiztegi...)

TRAZAKETAREN inguruko gorabeherak Dani itsasondoarrak argitu zituen, oinarritzko adierazpenak ahanzi gabe. "Donostia, Bilbo eta Gasteiz elkartuko litzukeen euskal 'Y' delakoa 'H' itzul liteke, 'Y'ari Tolosa eta Iruñea uztartuko litzukeen besoa erantsiko balitzaio". Era berean, erreferentzialtza balio deza-

keten datu batzuen berri eman zuen. "Madril eta Sevilla lotzen dituen AVEak 50.000 animalien heriotza dakar urtero. Animaliek trenarekin edota elektrahariteriarekin egiten dute tupust".

BERE MAHAIKIDEEK egin zuten bezala, Danik AHTaren gerizpe den informazio falta salatu zuen. Besteak beste, udalei leporatu zitzairen biztanleria jakinaren gainean jarri ez izana. "Herriaren ezjakitateaz baliatuz eta inongo argibiderik emateke, udalek aurkeztu dituzte jadanik trazaketarekiko alegazioak eta hasiak dira dagoeneko lurra aztertzeke egin ohi diren sondeoak. Aurkeztu diren alegazioak txikikeriak izan dira beti, udalei ez baitzaie bururatu ere egin AHTa gaitzestearen aukera. Askota jota, nork bere lurretik urrun ikusiko lukeen iraganbide 'egokiagoa' bilatzearen eskaera luzatu dute, Zaldibiako Udalak bezala". Azken honen jokabideak udal guztien egiteko modua islatzen du. "Zaldibiako Udalak

txosten zabal bat aurkeztu zuen alegaziotzat. Bertan, gogor kritikatzeko da trenaren betiere argudio politikak erabiliz. Zoritzarrez, informarean azken puntuan, AHTaren proiektua gaitzetsi beharrean, Zaldibia hondatuko ez lukeen alternatiba baten beharra azpimarratzen da, txikizioa ondoko herriari oparitzu".

JENDEAREN GEHIENGOAK ez zuen inondik ere uste AHTaren proiektua hain garatua zegoenik. "Eta alderdi politikoek zer diote?" galdetu zuen etsipenduriko ahots batek. "Alderdi ezberdinekin harreman handirik izan ez dugun arren, garbi dago oro har onartzen direla lurralde antolaketarekiko irizpide hauek. Ez dago trenaren asuntza gaitzesten duen partidurik", zioen Martak. "Hala ere, garaiz da oraindik eta gure esku dago era honetako ezarpenei aurre egitea. Kontra egiten ez badugu aise egingo dute gurekin nahi dutena". Abiadura Handiko Trenaren kontra joateko proposamenetako bat AHTaren Aurkako Asanbladarena da. "Gure asanblada asteazkeneko bildutza da Ordiziako gaztetxean, arratseko 7etan. Etorri nahi duen guztiak irekiak aurkituko ditu ateak"; horratx Danik luzatutako gonbitea.

*Abiadura Handiko Trenaren
Aurkako Asanblada*

TXANDAKA

Neure aipua

Ondo ala gaizki, mintza bitez nitaz. Hori da optimistaren lelo eta lema. Seiehun orrialdeko liburuan aipatzen nautelarik, ohore handia izan da niretzat, eta egilea Juan Garzia Garmendia bezalako bat edo Juan Garzia Garmendia berbera denean, are gehiago. "Joskera lantegi" du izenburua, halaberharrez, IVAPen laguntzaz atera duen liburu mardulak. Beste milaren artean, nik behiala "Administrazioa Euskaraz" aldizkarian idatzitako esaldi bat komentatzen du: "Berrito diotsuet, euskara ikas eta errebindika dezagun geure barrenge behar eta premiei erantzuteko eta ez fatxada zuritzeko" idatzi omen nuen.

"Idazle zaharren jiteko joskera" dio Juan Garziak. Aze ohorea hori ere, niretzat. Baina honela jarraitzen du gero: «Sentitzen dut, baina "euskara" da hor dudarik gabeko galdegai», eta horrenbestez koma bat faltako litzateke perpaus mugan ("dezagun, geure"). Zergatik sentitu? Galdegia "euskara" delako ala koma falta delako?

Nork ipin lezake, bada, zalantzan galdegia "euskara" denik? Ados gaude. Juanen harridurak harritzen nau, orde. Ondorengo honek ere bai: "Ustez Altube horretaraino lagun -segitzen du-, beste honako hau esan *nahi* luke esaldi horrek idatzizko kode tranpagabea: "Berrito diotsuet: **geure barrenge behar eta premiei erantzuteko** ikas eta errebindika dezagun euskara, eta ez fatxada zuritzeko".

Ez nago konforme Juanen interpretazioarekin. Niri ez zait burutik pasa ere egin "geure barrenge behar eta premiei erantzuteko euskara ikasi eta errebindikatzetik". Bakoitzak jakingo du bere barrenge behar eta premiei erantzuteko zer ikasi eta errebindikatu. Agian, pintatzen ikastea.

Nik esan nahi dudana da: "euskara (ikastekotan) ikas eta errebindika dezagun geure barrenge behar eta premiei erantzuteko". Argi al dago? Bigarren abizena berdina izatea baino kointzidentzia handiagorik bada Rufino Iraola Garmendia eta Juan Garzia Garmendiaren artean, baina dena ez da posible izaten.

Rufino Iraola Garmendia



Zer moduz ikusten duzu Gala komertziala antolatzen?

Joxe Ramon Munduate Munduate erlojutegia-bitxitegia

Ondo dago, nahiz eta lan asko izan. Ordiziarentzako ona da. Leku aproposa da produktuak erakusteko. Duela 2 urte egin zenarekin jendea gustora gelditu zen.



M. Asun Perez de Biñaspere Biñaspere

Ondo, eskaparate ona izaten da. Dena den, ezin dira emaitzak neurtu. Lan asko eskatzen du antolatzeak, baina gustora gelditzen gara, jendeari gustatzen zaiola ikustean.



Belen Unanua Zipi Zape

Positiboa da, baina lan asko ematen du. Orain bi urte jende asko kanpotik etorri zen eta hori nabaritu egiten da, Galan ikusitakoa erostera ere kanpoko jendea etortzen baita.



Xikel

NEVES

BANATZAILEA

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Urdaneta, 41

☎ 161606

ORDIZIA



Juanito Rubio



Oianguren parkea

☎ 88 91 06

ORDIZIA

UDABERRIKO MENUA

1.-

Kardu eta alkatxofak urdai azpikoarekin
Bakailao eta baratxuri freskoen nahaskia
Udaberriko entsalada
Perretxiko eta baratxuri freskoen hojaldrea
Arrain eta marisko zopa
Babarrunak

2.-

Txekor saiheskia
Baserriko oilaskoa patata panadarekin
Bakailao xolomoa piperradarekin
Ahate deliziak oportora
Izokia plantxan

Etxeko postreak, Errioxako ardoa, sagardoa...
2.100 pzta. + BEZ

Horrez gain, betiko karta, asteburuetak menu bereziak, hala nola babarrunak eta baserriko oilaskoa

ZINEA

GOIENIZ:

Apirilak 2, 'Tesis', 21:00etan, Usurbe Antzokian.



'Tesis'

Alejandro Amenabar
(Espainia, 1995)

Angela kazetaritza ikaslea da eta ikus-entzunezkoen arloko biolentziari buruz ari da tesia prestatzen. Bere tesi zuzendararen hilketa arraroak bidea emango dio piskana-ka 'snuff movie'-n (benetako bortxakeria eta hilketak irudi gordinetan) mundu ilunean barnertzeko; azti ibili! edozein ere horrelako filme batean protagonista izan daiteke eta.

Alejandro Amenabarrak suspentsezko istorio bikaina egitea lortu du, jende gehienak ezagutzen ez duen gai kezgarri batez ohartaraziz gainera, eta arriskuaren giro itogarria ezingo dugu astindu antzokiko argiak piztu arte. Zuzendari gazte honek teknika ondo menperatzen du, narrazioa bikain garatzen du eta soinu banda oso egokia da bere lehen luzemetraian; etorkizun handia duenik ezin ukatu.

BEASAIN:

'Jackie Brown'. Ostirala 27: 22:15; larunbata 28: 19:30, 22:15; igandea 29: 19:30 - 22:15. astelehena 30: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Chakal'. Larunbata 28: 17:30, 22:15; igandea 29: 17:30 - 22:15. astelehena 30: 19:30.

'Airbud'. Igandea 29: 16:45.

'Megasonikoak'. Olarunbata 4: 19:30, 22:15; igandea 5: 16:45, 19:30 - 22:15. astelehena 6: 19:30.

MUSIKA

BEASAIN:

Martxoak 27, 'Mari Cruz y los que le afinan el piano'-ren kontzertua, Udaletxeko enparantzan, 23:00etan, 'Udaberri Gaztea'-ren barruan.

Martxoak 27, Gazte Asanbladak antolatutako, Geroh, Liv eta Atxantatu taldeen kontzertua, San Martin plazan, 22:00etan.

Apirilak 3, Euskal musika tradizionaleko instrumentuen erakustaldia, Juan M. Beltranen eskutik, 20:00etan, Udaletxeko Batzar Aretan, 'Udaberri Gaztea'-ren barruan.

Apirilak 4, 'Hemendik at!' eta 'Zeamays' (Euskadi Gazteko maketaren irabazleak), Udaletxeko enparantzan, 23:00etan, 'Udaberri Gaztea'-ren barruan.

ORDIZIA:

Apirilak 4, Ordiziako II. Akordeoi txapelketa, Majori kiroldegian.

SEGURA:

Martxoak 28, Zpeizurdeak eta Etzakit taldea, plazan, 23:00etan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Martxoak 30, Tatuajeak gaia jorratuko dute, Ana Kristina Olanok eta Dariok. Udaletxeko Batzar aretoan, 19:30ean. 'Udaberri Gaztea'-ren barruan.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Apirilak 3, Ados Teatroa taldearen 'Lamiak' lana, Usurbe Antzokian, 22:15etan, 'Antzerki garaia'-ren eta 'Udaberri gaztea'-ren barruan.

ORDIZIA:


Martxoak 27, Ñake taldearen 'Comicos muy peligrosos' lana, Herri Antzokian, 22:15etan, 'Antzerki garaia'-ren barruan.

Apirilak 17, Hika taldearen 'Hau komeria' lana, Herri Antzokian, 22:15etan, 'Antzerki garaia'-ren barruan.

IKUSENTZUNEZKOAK

LAZKAO:

Apirilak 1, Erramun Martikorena eta Andres Monrealen 'Dominika 96' ikusentzunezkoa, Udaletxean, 21:00etan.



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 88 79 72
Senpere. 7
BEASAIN

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Martxoaren 27tik aurrera, Lasarteko Altxorta elkartearen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

Martxoaren 23tik aurrera, Josu Konde lazkoartarren pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

SEGURA:

Apirilaren 5era arte, euskal arte garaikidearen pintura eta eskultura erakusketa, Jesus Jauregiren arte galerian.

ORDIZIA:

Apirilaren 15era arte, Sarriegi, Lekuona eta Oteizaren erakusketa, Barrenan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 29: Trapalartara (604 m)

Martxoak 22: Santamanara.

Idiazabalgo mendizaleak:

Apirilak 5: Mendizaleen Olinpiada (III).

Ordiziako mendizaleak:

Martxoak 29, XXXIII. Ordiziako haur mailako martxa.

Apirilak 5: Lizarraga-San Donato.

Apirilak 18: Ordizia-Ikaztegieta.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Lana:

☐ Neska bat prest dago etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. 16 00 99.

Salerosketak:

☐ Txakurkumea salgai (98-3-lean jaioa). Ama, Braco alemana pedegreearekin. Aita, Braco aleman-frantzes. Euskadiko azpitxapelduna oilagorretan. 80 01 08.

☐ Irrati kaseta salgai, Blaupunkt/kt stereo markakoa. 88 13 19.

☐ Atenditu ezin dugulako artzain txakur polit eta mantsoa oparitzen dugu. Baldintza, libre ibiltzeko adina toki edukitzea. 161945.

☐ Boxer arrazako txakurkumeak salgai. Pedigri onekoak. Mikel. 882927. Iluntzetan deitu.

☐ Artzai txakurkumeak salgai. Prezio onean. 885102.

☐ Piaggio NRG motorra salgai. Urez errefrigeratua, 1800 km, aseguru

barne. Axier. 88 60 30.

☐ Vaillant berogailua salgai. Modu onean, Berria. 10 litrokoa. 88 99 32.

☐ Opel Corsa autoa salgai, SS-2036-AT matrikuladuna. Berri-berria. Oso modu onean. 72 12 11. Axun.

☐ Yamaha Virago 1100 motorra salgai. Egoera onean. Alberto 68 34 31. Gauean deitu.


Bestelakoak:

☐ Aralarren, Txindokira bidean zilarrezko esku-muturrekoa (pultsera) aurkitu da. Jabeak dei dezala 88 26 83 telefonora.

☐ Betaurreko pare bat galdu nuen orain hilabete bat Beasaingo Super BM eta Ataun artean. bifokalak dira eta funda beltza baten barruan zeuden. 180041. Karmen Munduate.

☐ Eskusoinuak konpon-tzen dira, marka eta modelo guztiak. 470 00 01. 5etatik 7etara deitu, oste-gunetan izan ezik.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 88 05 87.

Martxoak 28-29: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 88 01 52.

Apirilak 4-5: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 160949.

Apirilak 11-12: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 88 05 87.

Apirilak 18-19: Lurnaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 88 18 28.



USURBE ZENTROA

- Hernia diskala (Tratamendu ez kirurgikoa)
- Lumbago, ziatika
- Kirol lesioak
- Errehabilitazioa

☎ 16 13 39

Andra Mari, 9-1.
BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:

☎ 16 01 20 Joan Iturrialde, 5 BEASAIN

Aprobetxa ezazu uda hizkuntzak ikaseko

Cambridge, 97ko uztaila



Nick Knight

J.M. Barandiaran, 1

☎ 88 00 83 - 16 00 51

ORDIZIA

*Aurten ere
Ingalaterrara
gurekin
etortzeko aukera
duzu 11 urteko
esperientziak
ematen dizun
konfidantzarekin*

WYSS HIZKUNTZA AKADEMIA

ALEMANIERA

FRANTSESA

INGELERA

EUSKARA

- **UDAN**, herrian gelditu eta hizkuntza bat ikasi edo hobetu nahi dutenentzat **IKASTARO TRINKOAK**.
- Hemendik aurrera, **ALEMANIERA BEASAINEN** ere ikasteko aukera.
- Eta uda arte itxoin nahi ez baduzu, **APIRILEAN HASIKO DIREN IKASTAROAK** aukera ditzakezu.

☎ 16 16 46

Urdaneta, 29 - behea **ORDIZIA**

SAGAR AKADEMIA

Garmendia Otaola, 7- behea **BEASAIN**

interlang

International Language Services



Ingeles eta aleman ikastaro trinkoak udarako



Haur, gazte eta helduentzako hizkuntz ikastaroak atzerrian, lan praktika, kirol eta bestelako ekintza askorerkin



Izulpengintza eta enpresatarako hizkuntz zerbitzu orokorrak



Au-Pair: gestio azkarra eta kontu haundiz aukeratutako familiak



Lan esperientzia atzerrian: Irakaslegoa eta begiraleak U.S.A.-n; ostalaritza eta abar

Kolon, 5

☎ 27 81 61

DONOSTIA

J.M. Iturrioz, 11 - 1.

☎ 16 05 72

BEASAIN

Elkano, 8 - 1.

☎ 88 11 37

ORDIZIA

Iparagirre, 8 - 1.

☎ 72 22 23

ZUMARRAGA



The Clover School of Languages



Udan ere zure frantsesa edo ingelera beharretan laguntzeko gaituzu. Gainera:

- **Abendurako 'Cambridge' azterketetarako prestakutza.**
- **Ingelera eta hipikako udalekuak.**
- **Ingelera ikasi jolastuz.**

Domingo Unanue Plaza, 5

☎ 16 20 16

ORDIZIA

ERREZETA



Gorka Salaberria
Rubiorena jatetxea
Beasain

GULEN ENTSALADA EPELA

Osagaiak: 500 g. gula, tipula erdia, tomate bat zurituta eta txikituta, limoi baten zukua, Ibarako 2 'langostino', pipermin 1, 2 baratzuri ale txikituak, barazki entsalada (endibia, berroak...) eta gatza.

Ontzi batean gulak, pipermina, baratzuri txikituak eta limoi zukua nahastu.

Zartagi batean tipula, Ibarako 'langostinoak' eta tomate txikitua egin; ondoren ontzian daukaguna gehitu eta gatza bota.

Aurkezteko, plater batean barazkiak ipini eta gainean zartagian egindako nahastea. Barazkiak olioazpin batekin goxatu, olioazpin hau kanela-olioa, gatza eta sagardo ozpinarekin eginik.

AHOLKUA

Kirol osasun zentrua



Etor Mendia
Kemen KOZ

Zer da kirol-osasun zentru bat? Ze pertsona motari zuzendua dago? Goi mailako kirolariak ez garenok ba al dugu lekuri ezugarri hauek eta gisa honetako beste galdera asko dira jendeak bere buruari egiten dizkionak.

Kirol osasun zentrua nagusiki **herriar ororen osasunaz** arduratzen den gunea da, eta kirolarekin loturik baldin badago kirol iharduera egokiak osasunarengan dituen onurengatik da. Gune hauek osasunarekin lotura duten alorrei erantzuna ematen saiatzen dira: medikuntza *prebentiboa* (arazo fisikoei aurre hartu eta ekiditen saiatu) eta asistentzia; egoera fisiko orokorraren balorapena zein iharduera egokitzen zaion bakoitzari

aholkatuz; iharduera fisiko horren planifikazioa norberaren helburuen arabera; elikaduraren kontrola norberaren beharrei egokitzuz; errehabilitazio funtzionala edota masaia.

Guztioi zuzendua

Garbi dago ezaugarri hauek gune bat guztiori zuzendua dagoela, bere **osasun egoera ezagutu eta zaindu nahi duen haur, guraso eta aitona-amonei**. Eta ez da halabeharrez bete-beharreko baldintza kirolaria izatearena, are gutxiago goi mailako kirolaria izatea. Guztiori komeni zaigu gure osasunaren berri jakitea, zein den gure bihotz-hodi sistemaren erantzuna esfortzu batean, ondorioz zein iharduera mota komeni zaigun jakin baitezakegu. Eta herriko kiroldegian mantentzen diren soinketa edo aerobika egiten dutenek urtero egin beharko lukete azterketa sakon bat, 3. adinekoek bereziki, iharduera hauek nahiko exigenteak izaten baitira taldeak oso heteroge-

noak izatearen ondorioz.

Beraz iharduera hauek osasuntsuago bizitzeko asmoarekin burutzen badira, ziurta dezagun lehenik ez direla kaltegarriak gertatuko eta jarri gaitezen arlo horretan adituak direnen eskutik. Eta berdin kilo batzuek galdu nahi ditugunean ere: gorputzak elikagai mota guztiak behar ditu ondo funtzionatzeko eta denetik jan behar da, baina neurri egokian. Oso kaltegarria izan daiteke lagun bati hain ondo joan zitzaien errejimena hura jarraitzea edo berdura eta fruta besterik ez jatea inongo kontrolik gabe.

Norberaren osasuna da bizitza kalitatearen neurria eta Kirol-Osasun zentruen ardura nagusia. Eta guztiok dakigu prebentzioaren garrantzia: askoz ere komeni-garriagoa da epe luzera gaitz baten asistentzia eta tratamenduan gastatzen den dirutzaren zati bat gaitz hoi prebentzioan inbertitzea. Ez da osasunarekin jolas egin behar.

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA

CGZ GOIERRI

Ikerketaren Zentrua

Gida-agiri eta arma baimenatarako ikerketak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Garagarza Pl. 10 ☎ 888734 ORDIZIA



"Ekogarbi ilargia bezain garbi"

☎ 16 02 23 - 970 95 00 88

Atxisain baserria IDIAZABAL

Garbiketa eta mantentze zerbitzuak

SERIOITASUNA,
KONFIDANTZA,
PROFESIONALITASUNA

Argazkiak honen esanonez egindakoak.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



Mikel Azurmendi

ETako Andaluzia komandako kidea delakoan Sevilan atxilotu zuen Guardia Zibilak martxoaren 21ean Mikel Azurmendi Peñagari-kano 'Hankas' arriarandarra. 31 urte ditu. Madril komandoko eta Goierri-Kosta komandoko kide izan dela uste du poliziak.

Aitor Aseginolaza

Martxoaren 15ean atxilotu zuten Idiazabalen 18 urteko Aitor Aseginolaza. Entzute-gi Nazionaleko epailearen aurretik pasatu eta martxoaren 18an kartzelan sartzeko agindua eman zuen. Kale istiluetan parte hartzea leporatzen zaio Aseginolazari.

Joanes Amundarain

Martxoaren 10ean libre gelditu zen otsailaren 24an atxilotutako Joanes Amundarain aramar gaztea, 500.000 pezetako fidantza ordaindu ondoren.

Mikel Otegi

Auzitegi Gorenak bi er-tzaian hil zituen Mikel Otegi itsasondoraren aurkako epaiketa berriz egin behar dela berretsi zuen martxoaren 12an. Zinpekoen epamahaiak absolbitu egin zuen Otegi, baina EAEko Auzitegi Nagusiak atzera bota zuen epaia iazko ekai-nean. Donostian egin behar-

ko da epaiketa. Dena den, epaiketa egiteko Mikel Otegi bertan egon behar du, eta itsasondorria ihes eginda dago.

ETT-en aurka

'Aztoratze astearen' barruan ABLE edo ETTren (Aldi Baterako Lan Enpresak) aurkako hainbat mobilizazio burutu ziren martxoaren 16tik 22rako astean Goierri, 'ETT-rik ez' le-mapean.



Joxe Aierbe

Gaintzar jatorrikoa den Joxe Aierbek 'Alako batean' liburua kaleratu du. Bertso jarriak bilditu, 50 guztira. Hitzaurrea aita zenak, Bartolok egina da. Honek ere bi liburu idatzi zituen, 'Nere mundualdia' eta 'Zaarrak berrituz'.

Javier Berasategi

31 urteko zegamarrak martxoaren 22an hil zen, txirrinduz zihola auto batek harrapatuta.

Aizkorri hildakoa

Martxoaren 22an Aizkorri 27 urteko Altsasuko gazte bat hil zen, bihotzekoak jota.

Vicky Dominguez

Laukiak espero dituen Vicky Dominguez ordiziarri Udalak pertsona baten

Kulturkideren ikastaroak

Beasaingo Kulturkidek, Kultura eta Ikerketa Dinamizatze-ko ekimena, bi ikastaro antolatu ditu apirilaren 17tik aurrera. Iaz izandako arrakasta ikusirik erabaki du Kulturkidek berriz ere bi ikastaro hauek antolatzea. Beasaingo Ezkiaga auzoko Udal Liburutegian izango dira bi ikastaroak.

- **Eguzki energiaren erabil moduak:** apirilaren 17tik ekainaren 27ra bitartean izango da, ostiraletan 19:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 9etatik 1,30etara. 60 orduko ikastaroa izango da. Matrikula: 19.500 pezeta.

- **Bibliotekonomia:** apirilaren 17tik maiatzaren 9ra bitartean izango da. Ostiraletan 19:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 9etatik 1,30etara. 20 orduko ikastaroa izango da. Matrikula: 14.500 pezeta.

Matrikularen epea apirilaren 16ra arte dago zabalik, Senpereko Merkataritza-Guneko 32. bulegoan. Telefonoa: 16 18 40. Ordutegia: 10etatik 12,30etara eta 4etatik 7etara.

etengabeko laguntza eskaini dio. Aste Santuan erditzea espero da. Atsedena hartzen ari da Vicky eta ondo omen doakio haurdunaldia.

Vilariñotarrak

Vilariño piloto ezagunak eta bere seme-alabek denboraldi berriaren aurkezpena egin zuten Olaberriako kart pistan, martxoaren 24an. Aitak Espainiako igoeren txapelketan eta Europakoaren zenbait probetan parte hartuko du. Ander semeak, berriz, Frantziako Renault kopan, eta Angela alabak Euskadi, Katalunia eta Espainiako kartin juniorrean. Mekaniko taldean Iñaki Olano eta Juan Negueruela

beasaindarrak daude.

Zuhaitz eguna

'Zuhaitz eguna' ospatu zen Beasainen martxoaren 24an. Sasieta zaborte-gian zuhaitz landaketa egin zen. Aurtengoan Alkartasuna Lizeoko ikasleen txanda izan zen. 40 landare aldatu zituzten. Zuhaitzen landaketaz gain Sasieta berri zuzen-zuzenean jaso zuten bertako instalazioak ikusiz.

Atsedena

Aste Santuko oporrak aprobetxatuz, atsedena hartuko du GOIERRITARRA aldi-zkariak. Lazkaoko jaietara arte, apirilak 24, ez da beste alerik kaleratuko.


Ekaitz Goikoetxea

Ekaitz Goikoetxea beasaindar bertsolari gazteak beste bi sari irabazi ditu. Altsasuko Ki-ma elkarteak antolatutako III. Bertsopaper lehiaketan lehen saria lortu zuen 'Aitona Patxi' lanarekin. Eta, beste hainbeste, 'Txikitasunean haundia' bertso sortarekin Zumarraga-Urretxuko XIII. bertsopaper lehiaketan.



Rax Rinnekangas idazlea Beasaingo Institutuan

Rax Rinnekangas ILARGIA IHESI



Martxoaren 11n Rax Rinnekangas finlandiar sortzailea izan genuen gurean Txindoki Institutuko ikasleok. Bere lurrean oso ezaguna den arren, Euskal Herrian inor gutxi du Raxen berri. Raxek berak, ordea, ederki ezagutzen du gure Herria (bertako askok baino hobeto), Donostian bertan bizi izan baitzen denbora batez, 1994-95 epealdian. Egunerokotasunetik irten eta bizitzaz aldatzearen etorri omen zen euskaldunon artera. “Finlandian ez dute Euskal Herria ezagutzen. Hara ailegatzten den informazio urria Madrilen bidez datorkigu. ETAre inguruko gora-beherak esaterako”. Idazle, argazkilari eta musikari hau 1954an sortu zen Finlandiako Laponian. 1978. urtean hasita eleberririk, kontakizun-bildumak, saiakerak eta argazki-lanak argitaratu ditu. Besteak beste, 1987an *Matka vuorimaa-han* (Mendi alderako bidaia: Nafarroako kontakizunak), Argazki-lanak, berri, 1988an *Baskit* (Euskaldunak), 1992an *Europalainen yö* (Gau europarra) eta 1994an *Paratiisin vangit* (Paradisuko preso-

ak). Argazki-erakusketak ere herri askotan izan ditu, besteak beste 1993an ‘Círculo de Bellas Artes de Madrid’ eta Gijongo ‘Palacio de Revillagigedo’ kultur-guneetan. 1989an Argazkilaritza Sari Nazionala jaso zuen eta 1992an Literatur Sari Nazionala. Urteak eman ditu atzerrian, Alemanian eta Espainian hain zuzen ere.

Raxek bere bizipen eta hausnarketak laburbidu zizkigun bi ordu inguru iraun zuen ahozko saioan. Hitzaldian zehar aipatutakoa askori deus ere inporta ez zitzaion arren, hizlariaren jardun arinak ez zuen inor aspertu. Aitzitik, Raxen umoreak farre algarak eragin zituen entzuleengan. Idazleak hizkuntza aunitz menderatzen dituen arren, ez daki oraindik euskaraz; horregatik, gaztelaniaz mintzatu zitzaigun. “*Aurki euskaltegiren batean hasiko naiz euskara ikasten*” zioen irrifartsu.

Finlandiarrak Europa izeneko herri bateko auzo bezala deskribatu zigun bere lurra eta bertako laponiar minoria Euskal Herriarekin alderatu zuen. “Finlandia-

ko 3.000 laponiarrek Espainia frankistako euskaldunen oinazea bizi dute. Finlandiak laponiarren kultura suntsitu du erabat azken 80 urteotan”. Finlandiar hizkuntzaz ere mintzatu zitzaigun. “Gure hizkuntzak posposizio asko erabiltzera behartzen gaitu. Mahai gaineen eskutitz bat dagoela adierazteko guk bi hitz baino ez ditugu behar. Berezitasun hau dela eta, espainierazko nobela ipuintxo bat izan daiteke finlandierara itzultzean”.

Finlandiar hizkuntzaz eta literaturaz ari zela, bere lanen nondik-norakoa azaldu zigun berau baldintzatu duten zenbait faktore aipatuz. “Nire haurtzaroko hamar urte semiautismoan eman nituen, hitzik esateke, ene inguruneari so”, zioen Raxek malenkoniak. Ziu-rrerik, hasiera bateko izaera barnerakoiak bultzatuko zuen Rinnekangas sormen lanera, barrena huster. Hain zuzen ere aipatu sormenaren emaitza da euskaraz irakur dezakegun ‘Ilargia Ihesi’ eleberria. Erein argitaletxeak argitaratutako liburu hau Jose Fran Ispuzua zumaiairrak itzuli du

finlandieratik zuzenean. “Liburu honekintxe irabazi nuen Finlandiako Sari Nazionala. Ingalaterra edo Alemanian argitara neza-ken liburu baina euskaraz hasi nahi izan dut. Euskaraz publikatze hau neure izaeraren islada izan da. Ez nuen merkatuaren interresetara makurtu nahi”. Finlandiako baserri-giroan kokatzen den istorioaren protagonista nahigabea da. Bihotzez maite den pertsonaren heriotzak eragin ohi duen nahigabea.

Joan aurretik argazkilari senaz hitz egin zigun Raxek. “Etetik irteten naizen bakoitzean nirekin hartzen dut azken 30 urteetan lagun izan dudak kamara. Denetariko gaiak interesatzen zaizkit betiere objektuarekiko harreman zuzena mantenduz. Ez ditut sekula nire argazkiak manipulatzen”.

Rax Rinnekangasi zoriontsu izan dadila opa diogu ilara xumeotatik. Finlandiarrak gudan utzi duen arrasto pozgarriaren erakusgarritzat honatx ‘Ilargia Ihesi’ eleberriko aipu laburra:

“Ilunbetan Soniaren algara alaia entzuten zen, nik lortu nahi nuen algara, alegia. Algara hori unetxo batez ere lortzen nuenean, ahaztu egiten zitzaidan mina. Arnasa har nezakeen, errealitatearen zatiak uki nitzakeen, gizaki izaten segi nezakeen. Algara eteten zenean, ordea, zatitan hausten nintzen, nahigabearen korrontean lohia bainintzan”.

Ondo izan Rax!

Igor Aristegi

II. GALA KOMERTZIALA 'ORDIZIAN' EK ANTOLATURIK ASTEBURU HONETAN

Ordiziako merkataritzako produktuak erakusgai, 37 standetan bilduta

Bihar, larunbata, irekiko ditu ateak Ordiziako merkatariek antolatutako II. Gala komertzialak. Bi egunetan zehar luzatuko da: larunbatean, goizeko 12etatik iluntzeko 9ak aldera arte; eta igandean, goizeko 11etatik gaueko 10ak arte. 200 pezetan balioko du sarrerak eguneko. Gloria Urteaga, Jose Antonio Ardanza Lehendakariaren emaztea, izango da inaugurazioan.

Ordiziako merkatariek eskaintzen duten produktu ezberdinen eszenatokia izango da Majori kiroldegia bi egunez. Guztira 37 stand edo postu jarriko dituzte.

Modari dagokionean, Ordiziako jantzi moda erakutsiko duten modelo profesionalak izango dira. Bi egunetan izango dira desfileak, iluntzeko 8etan. Larunbatean, dena den, Euskal diseinu eta moda elkartearen lanak ere erakutsiko dira, desfilearen aurretik. Lande Martin Aragon eta Sonia Campo etorriko dira.

Pertsonaia ospetsu gehiago ere etorriko dira. Batetik, Goenkaleko aktoreei larunbatean, 12,30etan ongi-etorri egingo zaie. Igandean, eguerdiko 12etan, berriz, Ruphert ileapaintzaile eza-gunari egingo zaio ongi-etorria.

Egitaraua

Martxoak 28, larunbata:

11:00etan: Herriz-Herri Irratiz zuzenean.

11:15ean: Zabaltzea eta Jakintza dantza taldearen saioa: Hasiera Gloria Urtiaga emango du.

12:00etan: Zabaltze Ofiziala eta Laguntasuna Errondailaren saioa.

12:30ean: Goenkale saioa aktoreen ongi-etorria.

13:00etan: Jakintza dantza taldearen saioa.

16:30ean: Urdanetan dantza taldearen saioa.

18:30ean: Oroith abesbatzaren saioa.

20:00etan: Modelo Profesionalen desfilea, Ordiziako dendak aurkeztuz. Ruphert ileapaintzailea bertan izango da.

Martxoak 29, igandea:

11:00etan: Irekiera.

11:30ean: Urdaneta dantza taldearen saioa.

12:00etan: Ruphert ileapaintzaileari ongi-etorria.

12:30ean: Iñaki, Marisol, E.R. Matxain, Arantxa, Manolo, Irene, Matxain eta Jos&Bel ileapaintzaileen erakustaldia eta Falika eta Librana Drug-Queens saioa.

17:00etan: Jakintza dantza taldearen saioa.

18:00etan: Santa Ana abesbatzaren saioa.

20:00etan: Moda desfilea.

22:00etan: II. Galaren amaiera.

Jantzi modarekin batera, ilearen moda ere erakusgai izango da, igandean, eguerdiko 12,30etan. Hurrengo orrian duzue informazio gehiago.

Ordiziako ostalariek ere izango dute beraien stand, 37.a hain zuzen ere. Tabernari bakoitzaren pintxo berezienak dastatzeko aukera izango da.



Arg.: Fototxe

Bi egunetan zehar dena den, standak ikusteaz gain, beste ikusgarri asko izango da. Ordiziako Jakintza eta Urdaneta dantza taldeen erakustaldia, Laguntasua Errondaila eta Oroith eta Santa Ana abesbatzen emanaldiak izango dira. Egitauek zehatza ondoko koadroan duzue.

Duela bi urte egin zen lehenengo aldiz Gala komertziala. Arrakasta handia izan zuen, antolatzaileen esanetan egunean 20.000 lagun pasatu ziren bertatik. Aurrera begira ere, jarraitzeko asmoa dute antolatzaileek.

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

ORDIZIAKO

Suquia

Kale Nagusia, 10

SUKALDEKO ALTZARIAK

*Sukaldea berritu nahi duzu? Zatoz
eta ikus ezazu gure erakusketa*

Vegasa

Xkey
Taldekoa

☎ 88 23 00

ORDIZIA

Ordiziako 8 ileapaintzaileren lanaren erakustaldia igandean

Ordizianek antolatutako II. Gala komertzialaren barruan, igandean, eguerdiko 12.30etan, Ordiziako 8 ileapaintzaileren erakustaldia izango da. Inaki, Arantxa, E.R. Matxain, Mari Sol, Manolo, Irene, Matxain eta Jos&Bel ileapaindegietako profesionalek hartuko dute parte.

Ileapaindegietan egiten duten lana erakutsi nahi dute, jendeak kalean eramaten dituen orrazkerak eginez. Ordubeteko tartea daukate jendearen aurrean beraiek egiten duten lana erakusteko. Zortzina modelo izango dituzte.

Jendearen aurrean bi lan egingo dituzte, beste askorako denborarik ez omen du ematen eta. Bakoitzak nahi duena egingo du, baina se-



Aurreko Galan Ordiziako ileapaintzaileak beraien lana egiten. Ileapaindegietan egiten den lana kaleratzea dute helburu. 64 modelo izango dituzte horretarako.

guruenik, ile mozketak eta ile bilketak egingo dituzte. 64 modelo izango dira, Goierrikoak gehienak, eta era guztietakoak: gizonezkoak, emakumezkoak, gazteak eta haurrak. Helduekin ez dute probarik egingo, nahiz eta beraien bezero nagusienak helduak izan. "Moda gazteetan gehiago isladatzen da, helduetan baino", diote.

Drug-Queens

Erakustaldia hasi aurretik Drug-Queensen saioa izan-

go da, Falika eta Libranarena. Oso gustora omen datoz Ordiziara Drug-Queens pertsonaia berezi hauek, beti hiriburuetan egiten baitute lana eta herri txikiagora

etortzeko gogoia omen daukate.

Beste pertsonaia espektakular bat ere izango da Galan: Ruphert. Ordiziako ileapaintzaileak dena den, ez daude oso ados pertsonaia hau ekartzearekin. "Ez da ileapaintzaile profesionalen adibiderik onena, baizik eta pertsonai artistiko bat da. Jendea erakartzea nahi da baina jendea erakartzeko beste modu batzuk badaude".

Gonbidapenak

Ileapaintzaileek adierazi digutenez, saioa ikustera joateko gonbidapenak ileapaindegietan eta Ordizianeko dendetan izango dira eskuragai.

Aurtengo joerak

Orrazkeretan zein modan joera dauden galdetzeko aprobe txatu dugu elkarrizketa hau. Ez omen da joera nabarmenik. Dena den, estilo geometrikoak berriz ere sartzen ari omen dira, orain arte gastatuak eraman diren bezala. Ile motza beti eramaten da, gehixeago edo gutxi xeago. Postizoen arloa puri-purian omen dago. Kolereetan, kolore naturalerako joera dago.

JM

SUKALDEAK

Euskal Herria Kalea
ORDIZIA
☎ 16 06 58

kontsulta eskatu



Sukaldeak berritu edo muntatu behar baduzu, prezio ezin hobe egingo dizugu

OSKARBI

OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

Goimenek baserri inguruko lurretan intxaurrondoak eta gaztainondoak landatzeko proposamena egin du

Baserri inguruetako sailetan intxaurrondoak eta gaztainondoak landatzera animatu nahi ditu Goimenek baserritarrak. Aurrera begira oso landaketa interesgarria dela ikusten dute eta "pinua jartzera kondenatuta egon beharrean beste alternatiba batzuk badirela" erakutsi dute. Teoria praktikan jartzeko, ordea, baserritarrak animatu nahi dituzte lehenengo esperientziak egin eta beste baserritar batzuentzat erakusleku izan daitezten.



Zumarragako Agerre baserria, "Gaztainondoak pinuari aurre hartzen"

Goimeneko lehendakariak. Horri irtenbide bat eskaini nahi diote Goimenetik. Hain zuzen ere, gaztainondo edo intxaurrondo landareak aldatuz. "Hiru erabilpen posible ematen dituelako aukeratu ditugu bi zuhaitz mota hauek. Batetik, momentuz zelai bezala mantentzeko aukera ematen duelako eta ardiak edo ganadu txikia sartuz gero garbitu beharrik ez duelako izango. Bestetik, erdi epera fruitua ematen duelako. Eta azkenik, aurrera begira ere, materiala ematen duelako". Gaur egun pinua landatzeko joera handia dago, "lan gutxi eskatzen duelako eta etekina ere polita jasotzen delako", dio Akizuk.

Ekimen hau bultzatzeko, ordea, "boluntarioak" behar dituzte, lehen esperientziak gauzatzeko eta ondoren beste baserritar batzuentzat era-

kusleku izan daitezten. "Teorian ematen da alternatiba intxaurrondo eta gaztainondoekin. Baina praktikan sinisteko ikusi egin behar izaten da askotan. Ikusi ahal izateko baserritar batzuek animatu nahi ditugu, laguntza berezi batzuek jarrita, sail batzuek proban jarritz". Duela 8 bat urte proposatu zuten lehendabizi ideia hau. Garai hartan Zumarragan Agerre baserrikoak animatu ziren bide honetatik. Gaur egun ikusteko moduko saila da. "Bai irabazi aldetik, bai fruita aldetik... oso ondo dator. Txertatutakoak sartu genituen eta bizpahiru urtera fruitua jasotzen ari da. Kilo mordoxxa bat bildu dute dagoeneko".

Hau dela eta bigarren bultzada eman nahi diote ideari. Proiektu honetan sartzeko baldintzak honakoak dira: baserritarra izatea;

baserri inguruko lurrak izatea, 1-2 hektareatik gorakoa; baserritarra bera zainketaz arduratzea; eta baso-landareak gustoko izatea. Behin baldintza horiek bete-ta, teknikariak hasiko lirateke lursail horrek balio duen edo ez aztertzen.

Laguntzak

Goimenekoek adierazi digutenez, ahalegin guztiak egingo dituzte landaketetarako laguntza eskariak tramitatzetarakoan. "Baso-landaketan % 85a bitarteko laguntza ematen da. Pinuaren kasuan inbertsioak txikiak izaten dira. Intxaurrondo eta gaztainondoen kasuetan gastuak handiagoak dira, landareak garestiagoak direlako eta lan gehiago egin behar delako. Orduan lortu nahi dugu inbertsio guzti horren % 85a eta herri bakoitzeko Udalak ere bere laguntzatxoa ematea, ia debalde ateratzeko ahalegina egingo dugu. Laguntza horren ordeztu landaketa ondo egitea, ondorengo urteetan egoki zaintzea eta zenbait datu jasotzea eskatuko zaio baserritarrari. Baita geldeztu doanari ere egoki atendi-tzea. Hori baita landaketa honen helburua: beste baserritarrek hauetatik ikastea".

Interesa duenak Goimenek Ordizian duen bulegora (Santa Maria, 4 -1. Tel.: 161244) jo beharko du.



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz beste

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAIÑEAN
Urolatik Goierriako bidean

Tfnoa.: 88 26 73

Aste Santuko ekitaldiak Seguran

Apirilaren 5etik 12ra bitartean, Aste Santuaren barruan, antolatu diren ekitaldiak honakoak dira.

Apirilaren 5ean, Erramu igandea, goizeko 11,45ean erramu bedeinkatzea izango da. Ondoren, 12etan, Meza Nagusia.

Apirilaren 9an, Ostegun Santu eguna, arratsaldeko 5etan, Jaunaren Afariko Meza izango da. Eta ondoren, Prozesioa.

Apirilaren 10ean, Ostiral Santu eguna, goizeko 8etan, Gurutz Bidea egingo da Santa Engrazitik Komentura. Arratsaldeko 4,30etan, Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna izango da, gurutzetik jaistea. Ondoren, arratsaldeko 6,15ean prozesioa izango da.

Apirilaren 11n, Larunbat Santua, komentuan ilun-

tzeko 8etan eta igandean 12etan, meza izango dira.

San Migel

14 urteko Sebas Telleria izango da Ostiral Santu egunez, aurtengo San Migel.

Bisita gidatuak eta erakusketa

Iazko ekimenarekin jarraituz, bisita gidatuak egiteko aukera izango da, Mari Jose Insausti gidariarekin. Segurako historiaren berri eman gozaie, Seguraz kanpoko bixitariari.

Aste Santuaren inguruko erakusketa ere jarriko da Kultur Etxean. Aintzinako jantziak, karrakak, kandela-broak, argazkiak, idatziak... ikusteko aukera izango da apirilaren 9tik 13ra.

Goian: 1941ean ateratako argazkia da. Aurtengo San Migelen (Sebas Telleria) aitona zena (Tomas Elorza), izan zen urte hartan San Migel. 3

urteko aingeruak honakoak dira: Sebastian Garaialde, Antonio Aldanondo, Ramon Auzmendi, Gregorio Urrujulegi, Iñaxio Aranzadi eta Jose Luix Etxeberria. Beheran: Duela 12 bat urteko argazkia da honakoa. Koldo Telleria izan zen San Migel.



AIZKOETA
taberna

Nagusia, 23 ☎ 80 10 04
SEGURA

ARANBURU
HARATEGIA

Nagusia, 34
☎ 80 10 14 - 80 01 41
SEGURA

LA CABAÑA
Fruta eta barazkiak

Zurbano kalea ☎ 80 11 77
SEGURA

SANTA BARBARA
karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 80 11 60
SEGURA

IMAZ Jatetxea

◆ Eguneroko bazkariak
◆ Karta

Kale Nagusia, 27 ☎ 80 10 25 **SEGURA**



SEGURAKO UDALAK herritarrok Aste Santuko ospakizunetan parte hartzera gonbidatzen zaituzte eta aurrez zuen betiko lan jatorra eskertu.


Seguraz kanpoko bixitari guztiei gure ongi etorriarekin batera, aurten ere herria ezagutzeko bisita gidatua eskeintzen zaizue.

Laureano Telleria: "Segurarrrek gehien sentitzen duten festa da prozesioa"

Apirilaren 9tik 13ra ospatuko den Aste Santuko ospakizunak antolatzen ari dira Segura aldean. Antolatzaile taldean dagoen eta Segurako ohitura biltzailea den Laureano Telleriarekin izan gara berriketan. Segurako altxor txikien jabe da, ohitura zaharrak, galdutako eta galtzear dauden hitzak, Segurari buruzko artikulua... bilduak ditu. Aurrejubilatutik dago Laureano eta asti gehiago du orain Seguraren alde lanean aritzeko.

Urteko egunik garrantzitsuenak dira Aste Santuko egunak segurarentzat, Laureano Telleriak adierazi digunez. "Txiki-txikitatik ikusi izan dugu. Jendeak sentitu egiten du prozesioa eta herri guztia prest egoten da ateratzeko. Festa bat izaten da, herriko festarik handiena. Herriak gehiena sentitzen duen festa".

310 bat lagun ateratzen dira prozesioan. Baina aurretik eta ondoren egin beharreko lana kontutan hartuz gero, askoz ere gehiagok. "Belatorioa egiten da elizan. 8 egun lehenago, erramu bezperan, 30 bat lagun elkartzen gara elizan jantziak, andak... prestatzeko. Dena kentzea eta berriro ere lehengora jartzeak



Kanpai jotzen, gida lanetan, erlojuari kuerda ematen, eta bideo-lanak egiten ere aritzen da Laureano.

ere lan handia ematen du. Baina jendeak babestu egiten du eta lana erraztu egiten du. Ikusten ez den lan asko egiten da", zehaztu du.

Prozesioari eutsi

Aste Santuko prozesioa orain dela 24ren bat urte galtzear egon zen, Kontzilioaren ondoren zalantzan egon zen prozesioa. "Ordu-rarte Gipuzkoako herri gehienetan Prozesioa egiten zen, Segura zalantzan gelditu zen. Baina herriak asko sentitzen zenez, aurrera jarraitu eta Segurakoa eta Hondarribikoa bizi-rik gelditu ziren".

Prozesioa noizkoa ote

den aztarnarik ez dago. 1722ko dokumentu batean agertzen denez, "oso aintzina-ko garaietakoa" den ohitura da prozesioa. Urterik gabe galdu egin da prozesioa. Eguraldi txarra izaten denean, eliza barruan egiten omen dute. "Neu ezagututa nago dudako eguraldia egon, atera, euria hasi eta 3 ataritan sartuta nola egon ginela guztiok. Eguraldi txarrarekin ateratzeak arrisku handia du, jantziak eta hondatu egiten baitira. Urte bati bakarrik ez zaio begiratu behar, aurrera ere begiratu egin behar da", dio segurarrak.

Gauetik arratsaldera

Aste Santuaren inguruan herriko zaharrenei entzundako ohiturak bilduta ditu Laureano

- Ostegun Santu gauean arto hazia aletu harrak ez sortzeko.
- Ostegun Santu goizean gaiztaina inausi.
- Ostegun goizeko kanpaitik larunbateko kanpaitik arte ganadurik ez zen lanera ateratzen.
- Ostegun Santu gauean ate eta leihoak ixten zituzten deabrua libre ibiltzen zelako.
- Emakumeak ahal zen ilunena jazten ziren Ostiral Santu egunean.
- Zinegotziak gurutzea bizkarrean trapu beltzarekin eramaten zuen, Prozesioan.

Garai batean Ostegun Santuko prozesioa gauez egiten zen. "Bada dokumentu bat jendeak parranda egiten zuela, neskalaguntzak izaten zirela, neska eta mutilak nahasten zirela... dioena. Horregatik pasatu omen zuen Elizak arratsaldera".

1907. urtera bitartean, berriaz, balkoiak subastatu egiten ziren prozesioa ikusteko. Elizak hau ere ez omen zuen oso begi onez ikusten, neska-mutilak balkoietan ikusten zirela eta. Debekatu egin zuen subastatu.

Aldaketa gutxi

Gainerakoan ez omen du aldaketa handiegirik izan Segurako prozesioak. "1892-ko argazkietan pasoa berdina direla ikusten da. 1937an Jesukristo gurutzeari hil zuteneko pasoa sartu zen. Diseinu eta arropa aldetik bestela berdintsu. Hori bai, orain dela dozena bat urte, emakumezkoak sartu ziren. 3 urteko haurrak ateratzen dira aingeru eta duela 12 bat urtetik hona neskak ere ateratzen dira. Penitenteekin ere berdina. Santu eramaten ez ditugu jartzen emakumeak, ezinarenatik. Ordu betean 50 kilo eramane behar dira bizkar gainean eta..."

Alkatearen bazkaria

Prozesioaren inguruan galdu ez den beste ohitura bat, alkatearen etxeko bazkaria da. Herriko bikarioa, gurutzetik jaisten den apaiza edo frailea, San Migel jazten den mutila eta aguazila urtero-urtero alkatearen etxera joaten dira bazkaltzera

Ostiral Santu egunez. Laureano ere San Migel izana da 14 urte zituenean, eta lehenengo angulak orduantxe jan omen zituen.

San Migelen inguruan ere izan zen 1926. urterarte beste ohitura bat: Udalak zapatak oparitzen zizkion urtero-urtero San Migeli. "Zapata zuriak izaten ziren eta gero berarentzat gelditzen ziren. Borroka handia izaten da San Migel nor izango".

Fede eta artea

Jende ugari etortzen da Segurara prozesioak ikustera. Batzuek fedeagatik eta beste batzuek arteagatik. "Fede aldetik jende asko etortzen da. Oso serio ikusten da jende bat, errezatzen, loreak jartzen... Etorri izan zaigu bat baino gehiago, ordaintzeko prest, promes egin dutela eta, ea santuren bat eraman dezaketen. Arte aldetik ere jende asko etortzen da. Kanpoko jendearentzat Jesukristoren jai-tsiera eta soldadu erromatarrak dira ikusgarrienak".

Sasoi onean

Laureanok adierazi digunez, adin eta pentsakera ezberdinetako herritarrak biltzen ditu Aste Santuko ekitaldi berezi honek. "Ni harrituta gelditzen naiz, urtean zehar elizan hiletetan bakarrik sartzen dena, 50 bat bizkarrean eramanez. Gazte jende asko etortzen da santua eraman nahi dutela esanez. Prozesioa desagertzeko arriskua bat izan zitekeela ikusten genuen, santu eramalerik ez izatea. Borondatez egitekoak dira lan gehienak, edonork egin ditzakeenak. Baina santua eramateko borondatea eta indarra behar dira, 300 kilo

inguru pisatzen dituen andak bai baitaude. Baina gazteak ikusten dira prest daudela. Sentitu egiten dute. Oraindik ere bada jendea, esaten duena, entrenamentua egiten dutela santuak eramateko".

Sasoi onean dago prozesioa. Beste datu bat eman digu Laureanok: 3 urteko 10 aingeru ateratzen dira prozesioan eta datorren urtekoak eskatuta omen daude.

Aingeru, nazareno, San Migel eta penitente pertsonaien papera bete izan du



Laureanok. Santu eramalearena ere bai. "Gurasotatik umetara pasatzen da santu eramatea. Nire edo gure santua esaten zaio. Fami-

liaka joaten da. Segurar batzuen logelan familiako santuak daude jarrita. Nik Piedadea pasoa eramaten nuen antolaketa lanetan hasi aurretik. Oso jende gutxi egongo da Seguran Santua eraman ez duenik. Esaera zahar bat bada hor: segurar ona izateko santu eramalea izan behar da", argitu du segurarrak.

Bitxikeria gogoratu du Laureanok santu eramaleen inguruan: "bazen santu eramaten 42 urte egin zituen bat, Pedro Garaialde. Ezin izan zuen garaian, berak eramandako santua eramaten zutenei eliz atarian itxaroten zien, eta bera bizi izan zen urte guztietan, tabernara eramaten zituen eta arrantxo txiki bat ematen zien".

Esker oneko lana

Lan asko du prozesioa antolatzeak. Laureanoz gain beste 4 bat lagun aritzen dira horretan. "Lan asko dauka baina lan erraza da, inork ez baitu oztoporik jartzen, guregana etorri baidzik. Beste lan batzuetan ikusten dut zein alderditatik datorren begiratzen zaiola. Lan txarra izango da herri batean lan bat egin nahi eta babesik ez izatea".

M.A. - L.A.

Segura, tradiziozalea

Ohitura zaharrak biltzeko zaletasun handia du Laureano Telleriak. Aitak ere ba omen zuen. Herriko zaharrenekin solasaldiak egin eta galduta edo galtzear dauden hainbat ohitura, hitz, bitxikeria... bilduak ditu. Segurak horretarako aukera handia ematen du. "Ohitura zahar asko mantentzen dira, oso tradizio zalea da Segura. Lehen garai batean herri inportantea zen, tradizioz betekoa. Jendeak gainera sentitu egiten ditu eta beti egoten da pertsonaren bat ohiturak mantentzearen ardura hartzen duena".

Santa Engrazi ermitan hazi bedekinkatzea, San Nikolas, San Jose eta Trinidad kofradiak, herriko 6 ermitetako festak, haurdun dagoen emakumeak Belengo Ama Birjinari kandela jartzea... ohitura zahar asko mantentzen dira Seguran. Horietako asko gainera, Seguran bakarrik mantentzen dira.

Galdutakoak ere badira eta Laureanori pena handia ematen diona, Asteazken Santuan egiten zen Barrabas jotzea da. "Berreskuratuko ote duten dabilta, baina zaila izango da. Herriko ume guztiok mazoak hartu eta Elizara joaten ginen bazkalondoren. 15 salmo kantatzen ziren eta salmo bakoitzeko kandela bat itzaltzen zen. Azkeneko kandela itzaltzen zen garaian, sakristauak eliza barrura pasatzen gintuen eta mazoarekin harri bat jotzen genuen, koplak kantatuz".

Galdutako hitzen zerrenda

Ohiturez gain, galdutako edo galtzear dauden 600-700 hitzen zerrenda ere egin du Laureanok. Hitzaren ondoan esan nahi dauka zehaztuta. Adibide batzuk eman dizkigu:

Peakie: elurra kentzeko erabiltzen zen pala.

Kakarazaka: oiloa kakarazaka dabil.

Apaapu: probisional egotea.

Krabezia: fundamenturik gabea.

Kera egitea: elizatik irten eta tertulia egitea.

ZEGAMA

Datorren martxoaren 30ean, iluntzeko 7etan, herriko Plan Estrategikoaren aurkezpena egingo da Kultur Etxean.

1996an hasi eta 1997an zehar, Goiekiren (Goierriko garapen agentzia) laguntzaz, hamabostero zenbait zegamarrek eta udal ordezkariak egindako hausnarke-ta eta azterketaren emaitza dela esan behar egitasmo hau. Lehenengo pausoa, herriko egungo egoera aztertzea izan zen, azterketa hau alor guztietan egin zen: biztanleria, langabezia, base-riren egoera, bertako indus-tria, herritarren ikasketa maila, zerbitzuak...

Azterketa zabala egin ondoren, zegamarrentzat zein etorkizun ikusten du-gun eta hori lortzeko zertan ekin behar zaion aztertu eta hausnartu zen.

Plan estrategikoaren aurkezpena



Hau egin ondoren, Uda-lak, bere Osoko Bilkuran onartu du, eta ondorioz he-rriri aurkeztea eta ezaguta-raztea erabaki da.

Beraz, Zegama eta bere etorkizunaz kezkarik due-nak, datorren martxoaren 30ean du aukera.

Euskararen eguna

Apirilaren 3an, Aitxuri he-rri-eskolak antolatuta, Eus-kararen eguna ospatuko da. Hona hemen, egun horreta-rako, prestatu den egita-raua:

9:30ean: Zegamar zein bes-te herrietatik (Ataun eta Segura) datozen haurrei harrera.

9:45ean: Haur Hezkuntza-koen emanaldia.

10:00etan: LHko 2. Ziklo-koen abesti saioa.

10:15ean: LHko 1. Ziklo-koen antzerki emanaldia.

10:30ean: LHko 2. Ziklo-koen 2. abesti saioa.

10:45ean: LHko 3. Ziklo-koen antzerki emanaldia.

11:15ean: LHko 2. Ziklo-koen 3. abesti saioa.

Beraz, badakizue, goiz on bat igarotzea nahi badu-zue, inguratu zaitezte egun horretan herriko antzokira.

Edurne Albizu

ATAUN

Azken asteotan San Martin-go Atsedentokiak eta bere inguruak bizitasun berezia izan dute, jendez beteta eta festa nagusi. Izan ere, uda-berri giroan neguko jokuak ospatu baitituzte herriko ju-bilatuek. Aurtengoan, gai-nera, inoiz baino partaide-tza handiagoa izan da, ia 400 lagun, alajaina!

Irabazleak, berriz, haue-txek izan dira: **Potean:** An-tonio Goikoetxea. **Igelan:** Julian Imaz. **Tokan:** Felix Eskisabel. **Musean** (lau erregetara): Bixente Goiko-etxea eta Juan Goikoetxea. **Musean** (zortzi erregetara): Miel Arratibel eta Joxe San Pedro. **Seiko urrean:** Mar-

tin Aldasoro eta Rufina Be-giristain. **Tutean:** Blaxa Aierdi eta Inazio Etxebe-rria. **Eskoban:** Antonio Goikoetxea eta Joxepa Etxeberria. **Puntu-tuan:** Bi-xente Matxain eta Pako Agirre.

Irabazle izan direnek eta bigarren egin dutenek baila-rako jokuetan parte hartu ahal izango dute (laster ospatuko dira joku horiek Be-asainen).

Euskal abizenak, euskal grafiaz

Udaletik datorkigun deia da honako hau: askotan gerta-tzen da guk geure abizenak idatzi euskaraz idazten ditu-

gula, baina agiri ofizialetan (nortasun agirian, pasapor-tean, jaiotza agirian...) er-dal grafiaz edo gazteleraz idatzita agertzen direla ("Mujika"-ren orde-z, "Mú-gica"; "Etxeberria"-ren par-tez, "Echeverría", "Goikoe-txea" jarri bitartean, "Goi-coechea"... eta horrelako-ak, alegia).

Inoiz saiatu bazarete ho-rrelako kasuetan zuen kon-tura joan eta abizenak legal-ki edo ofizialki ere euskal grafiaz jartzen, konturatuko zineten lan handia eskatzen duela, oztopoak nonahi, al-de batetik bestera bueltaka ibili behar...

Ba orain, arazo hori behin betirako konpontzeko aukera dugu ataundarrok. Nola? Udaletxera hurbildu eta kitto! Bertan, beharrez-ko pauso guztiak ematen la-gunduko digute.

Baina kontuz, martxo-a-ren 31n amaitzen baita kan-paina hau. Berandutxo za-biltzatenok ez etsi, oraindik badiutuzue eta egun batzuk.

Heriotza

Hil berri da Teodora Imaz Imaz, Gomensoro baserri-koa. Bere sendiarekin bat egiten dugu euren nahiga-bean.

Josune Aldabe

Jubilatuen neguko jokuak

BEASAIN

Udaberri Gaztea aurrera

II. Udaberri Gaztea martxan da pasa den astelehenetik. Lehen ekitaldiak ospatu dira, baina oraindik badira beste hainbat apirilaren 4era arte. Honela, adibidez, gaur gaueko 11etan San Martin plazan, 'Mari Cruz Soriano y los que le afinan el piano' talde madrildarraren kontzertua izango da.

Bihar arratsalde, berriz, ekintza berri eta berezia iritsiko da San Martin plazara; 3,30etatik aurrera, Gazteenkana, joku izaerako herri Olinpiada jokatu baita. Sei frogak izango ditu Gazteenkanak: kamikazea (9 metroko errokodromoa igo-tzea), gladiadoreak (gomazko lantzekin borroka 4 metroko altueran), sumo borroka, arku-tiraketa, sokatira eta bufalo mekanikoa.

Jokoa lau partaideetako talde mistoak izango dira, 15-29 urte bitartekoak, eta bi lehiaketa paralelo izango dira. Bata ikastetxei zuzendua, hauek diru-saria izango dute ikasketa bidaie-tan laguntzeko eta bestea irekia, hemen afari bat egongo da sari modura. Berandu xamar den arren oraindik izena emateko aukeraren bat izan dezakezue, horretarako Antzizar kiroldegira jo (887900).

Aurrera segiz, astelehe-nean (martxoak 30), gazte-en munduko hitzaldiekin jarraituko da. Udaletxeko Ba-



Udaleko Gazteri eta Kirol Sailaren logotipoa aurkeztu da. Egilea Silvia Diez beasaindarra da.

tzar Aretoan, 7,30etatik aurrera, tatuajeei buruz arituko dira. Eta asteazkenean, berriz, toki eta ordu berean, 'Gazteria eta etxebizitza (plan bereziak)' izango dute gaitzat. Bestalde, ostiralean Euskal Musikako tradiziozko instrumentuen (txalaparta, alboka...) erakustaldia izango da Batzar Aretoan, arratsaldeko 8etan.

Eta Udaberri Gazte honetako azken ekitaldiak, larunbatean, apirilak 4, iritsiko dira. Arratsalde partean Gazte-peria izango da Udaletxeko plazan. Bertan, gazteen ininteresko marrazki, zeramaki, e.a. eta azkenik gaueko 11etan, kontzertu handia izango da plazan bertan, bi talderekin: Hemendik At 'dance' talde donostiarra eta Zeamays, Euskadi Gaztea maketa lehiaketan garaile izan den taldea.

Koadrilarteko futbito txapelketa

Dagoeneko bigarren fasean murgildurik da koadrilarteko txapelketa. Urritik martxorarte luzatu den lehen fasean, 40 ekipotik gora aritu dira bi taldetan banaturik. A taldean, Zumazuritze izan da dominatzaile nagusia, partidurik galdu gabe 58 puntu bildu baitituzte. Bigarren Eurobetis izan da 48 puntuz. B taldean, aldiz, parekotasuna izan da nagusi. Azkenean, Ukabik izan da lehena 47 puntuz eta bigarren Potrozorri 46rekin. Orokorrean, puntu beltz bakarra talde dexenteren seriotasun falta izan da, txapelketa bukatzeko gai ez baitira izan, jokatzera edo arbitratzera ez agertzeagatik.

Gauzak honela, talde bakoitzeko 8 lehenek aurrera

egin dute eta dagoeneko jokoa da bigarren fasea. 4 ekipoz osatutako 4 talde osatu dira eta bakoitzeko bi lehenak sailkatuko dira final laurdenetarako. Honela geratu dira taldeak:

- A:** Zumazuritze
Sportingo del Cojon
Lagun Artea
Muebles Txindoki
- B:** Eurobetik
Auskalo
Zurrek
Koiote taberna
- C:** Potrozorri
Txirriburduntzi
Bai Igartza
Spazum
- D:** Likabik
Arriaran
Altzaporru
Zarbel-Aterpe

Antzerkia

Datorren ostiralean, apirilak 3, Antzerki Garaia berruko beste antzezlan bat izango da, Garbiñe Losadak sortu eta zuzentzen duen 'Lamiak' lanarekin. Bertan, hiru emakume sukalde baten inguruan nola lagun bihurtzen diren eta elkarrekin nola amets egiten duten kontatzen da, euren istorio propioa sortuz.

Odol ateraldia

Apirilaren 6an, astelehena, beste odol ateraldi bat izango da Urbi-Etxeko Odol Emaileen Delegazioko egoitzan.


Aitor Arrue



Nafarroa Etorbidea, 9

88 94 82

BEASAIN



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritan

Larunbat arratsalde irekita

Erakusketako eta faxa: 889113 - mugikorra: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN

IDIAZABAL

Etxegarate magrebiarren gordeleku



Poliziak 18 magrebiar atxilotu zituen Etxegaraten martxoaren 17an. Martxoaren 14az geroztik ari zen polizia magrebiarren bila, izan ere egun horretan Irungo muga pasatu nahian zebiltzan bi inmigrante atzeman zituen poliziak. Haien atzetik magrebiar gehiago egongo zelakoan ikerketa egiten hasi ziren eta Etxegarate inguruan izkutatuta bilatu zituzten besteak. Ikerketa egiten ari direnen esanetan litekeena da oraindik ere magrebiarren bat Goierriko herriren batean izkutatuta egotea.

Aurreko egunetan gertatutakoa ordea ez da berria. Etxegaraten bi-zi direnak kontatutakoaren arabera duela 35 urte ere gertatzen ziren horrelakoak. Garai hartan portugesak Galizia aldean kamioetan sartu eta Etxegarateraino ekartzen zituzten, bertan jeitsi arazi eta begi aurrean zuten etxea Frantzia zela esanez bertan uzten zituzten.

Jubilatuen elkarteak

Idiazabaglo jubilatuen elkarteak, aurreko larunbatean, martxoak 21, egin zuen urteko batzarra. Batzar horretan urteko balantzea egin eta junta berritu zen. Une honetan herriko jublatu elkarteak 280 bazkide ditu.

Mendiko olinpiada

Mendi sailak antolatutako Mendi olinpiadak bigarren jarduna izan zuen aurreko asteburuan. Bigarren ekitaldi horretan mendizaleek orientazio ibilaldia egin



Gaztaiaren festa

Maiatzaren 3an egingo den gaztaiaren festarako egitaraua itxura hartzen ari da dagoeneko. Gaztaiaren batzordea antolatzen ari den egitarautik hauek zehaztuta daudenak: goizean zehar plaza inguruan hainbat puesto egongo da jarrita, horietan gazta dastatzeko aukera izango da. Plazan bertan gazta nola egiten den ikusteko modua ere egongo da. Artzain izandako bi bertsolarik beraien saioa eskainiko dute aldera: Florentino Goiburu herritarrak eta Mañukortak.

Bazkalaurreko jaia bukatu aurretik herriko hiru artzaini omenaldia egingo zaie. Arratsaldean berriz herri-kirolak ikusteko aukera izango da.

zuten. Talde bakoitzak mapa eta iparrorratza eskutan zutela antolatzaileek izendatutako lekuak aurkitu beharra izan zituzten. Ibilaldia egin aurretik iparrorratza eta mapak erabiltzen ikasteko oharrak eman zi-

tzaizkien parte hartzailei.

Mendiko olinpiada otsailaren 15ean hasi zen. Egun hartan Atxurbideko mendian ibilaldi neurtua egin zuten.

Xabier Urteaga



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN


ORDIZIA

Rugby taldea lehen mailako txapeladun

Amaitu berri dute Ordizia-ko rugby taldekoek eurei dagokien liga. Eta amaitu, ezin hobeto amaitu dute, izan ere lehen postua eskuratu baitute. Lehen postu honen ondorioz, gorengo mailara igotzeko kanporaketa jokatzeko ari dira orain Axio Araña eta J.M.Larrañagak entrenatutako jokalariek. Nahiko gaizki hasi dira, ordea, uste baino aurka-ko hobia egokitu baitzaie eta asteburuan bertan 30 puntuko aldeaz galdu baitzuten. Trebijanonek lan eskerge egin beharko dute aurrera segi nahi badute behintzat.

Aspaldian erakutsi gabe zegoen Ordizia R.T.a denboraldi honetan ikusi den maila ona. Izan ere, beti ibili izandu da goiko postuetan, baina gutxitan lehen postu horretan. Jokalari nahiko gazteak direla kontutan izanda, gainera, hasierako helburu bezala lau lehenetan sartzea zuten. Hori lortu dute eta ondorioz FER deritzon Kopan parte hartuko dute.

Rugby Taldea Euskadi-Aragoi multzoaren barruan aritu da lehian. Estatuan beste 3 multzo ere badaude. Orain multzo bakoitzeko bi lehenengoei kanporaketa jokatu dute. Eta kanporaketa pasatzen duten 4 taldeek gorengo mailara igotzeko ligaxka jokatu dute euren artean. Azkenean 2



Oteizaren eskultura

Hilabete batzuk aurrerago ipini bazuten ere, joandako astean inauguratu zuten Goen kaleko Jorge Oteizaren eskulturazarra. Oteiza bera bertan izan ez bazen ere, jende ugari hurbildu zen hain eskultura bitxiaren inguruan. 4 tona inguru pisatzen ditu eta esan bezala ikusgai dago Goen kaleko plazatxoan.

igoko dira. Ordiziari, aurretik esan bezala, nahiko gaizki jarri zaizkio gauzak, ordea. Izan ere A Coruña-ko Crat Xestur taldearen aurka 43-13ko emaitzaz galdu eta, orain, bereak eta bi eman beharko ditu Trebijanonek galiziarrek 30 tantu baino gehiagoz gailentzeko. Lan nekeza izango den arren, ordiziarrek beren alde daukate denboraldi osoan talde bakarra izan dela 2 puntuak bertatik eramanez dituenak, Bera Bera hain zuzen. Bera Bera da (hirugarrena geratu arren) Ordiziarekin batera igoera fasea jokatzeko ari den beste taldea. Ea zorte

ona duten eta irudi ona erakusten duten galiziarren aurka.

Elkartearteko mus txapelketa

XIX. Elkartearteko Mus Txapelketa jokatzeko ari da jadanik. Itxaropena Elkarteari egokitu zaizkio aurreko antolaketa lanak egitea eta astelehenetik apirilaren 3ra bitartean, hor arituko dira Argi Berri, Txapel Gorri, Azari, Jai Alai, Boxing, Larrun Arri, Mendizaleak eta Itxaropena bertako muslaririk onenak, nor baino nor. Bi multzotan banatuak daude 16 bikote parte hartzaile-

ak (elkarteko bi) eta ligaxka jokatu ondoren bi multzoei garaileak elkarren aurka arituko dira aipatu apirilaren 3an. Eta jakina, zein elkarte izango den garaile jakin eta gero afari eder bat egingo dute denen artean.

Ordizia eta Santa Amalia

Extremadurako herria den Santa Amalia eta Ordizia anaikidetu berriak dira. Izan ere herrian alde hartako ugarirekin topo egin dezakegu, 500 inguru aipatu denez. Santa Amalia izan da Ordiziarekin anaikidetu den lehen herria eta hau dela eta, Beti Argi herriko bandak Aste Santuan bertan jotzeko asmoa du. Akordioa sinatzerako orduan Santa Amaliako ordezkari politikoak izan ziren bertan.

Orkli eta lanpostuak

Orkli enpresa ondo doala eta, Ordiziako fabrika dirutza inbertitzeko asmoa du. Epe motzera ia 6.000 milioko zifrez hitzegiten da, eta honekin 90 lanpostu berriren sorketaz hitz egin daiteke. Orklik egun 252 langile ditu, horietatik gehienak kooperatibako kide direlarik. Beraz, epe laburrera 350 langile izatera pasa daiteke, produkzioa igoko bailuke inbertsio berri honekin.

Aitor Calvillo

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 ORDIZIA

LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 88 60 70

BEASAIN



☎ 88 55 00 ORDIZIA

SEGURA



Pedro eta Joxe 1979ko herri afari batean, Imazene aurrean.

Segurako Txirrindulari Elkartearen inizatibaz, apirilaren 4rako antolatuta duten bertso saioan, herritarren omenaldia jasoko dute Joxe Insaustik eta Pedro Etxezarretak. Joxe Axkueta eta Pedro Urnausi, herriko bi bertsolari aipagarrienak dira. Batak zein besteak, herrian ezer zen guztietan parte hartu izan du. Lehiaketa dextentetan parte hartuak dira. Joxe, 1962an Txapelketa Nagusirako Beasainen izan zen eskualdeko kanporaketan 2. geratu zen, Lazkao Txikiren atzetik. 1964an eta 1966an, orde, lehenengo. 1964an, Trinidad plaza lehiaketan 1. eta Loiola Irratikotan 2. egin zuen. Pedrok, 1974 eta 75ean AMPOk bertsu afarietako saioak irabazi zituen eta 75ean Gabiriako Osinalde lehiaketan 2. postua ere lortu zuen. 1985ean, Txapelketa Nagusiko lehen kanporaketa ere pasa zuten biek. Baina euren lorpenik handienetakoa, Euskadi Irratiak antolatutako 'Fernando Amezketarra' saria izan zen. Tolosan, 1985eko ekainaren 23an zestoarrei irabazitakoa. 21 herrik parte hartu zuten herri arteko txapelketan, 5 saioetatik 5ak irabazi zituzten Florentino Goiburu lagun zutela. Beste-

ak beste, Andoni Egañak parte hartzen zuen Zarauzko taldea ere kanporatu zuten.

Bertsu saioari dagokionez, 22:30ean hasita, M. Lujanbio, S. Lizaso, J. Agirre, I. Murua, M. Mendizabal, A. Egaña, A.M. Peñagarikano eta Mañu-korta arituko dira eurretako bat gai jartzaile dela. Sarrera: 800 pta. Berogailua jarriko da.

Kanpai doinu berriak

Aste honetan zen Palenciako kanpai enpresa bat elizako kanpai doinu guztiak programaturik jartzekoa. Erloju, meza, hileta eta hil kanpaiez gain, goizeko 8,30etan eta iluntzeko 8etan 'Ai Marikoak' eta eguerdiko 12etan Segurako dianaren 'orazioa' entzun ahal izango dira aurrerantzean; azken hauek egunero.

Bola

Martxoaren 21ean Legazpin izan zen Goierriko txapelketaren 7. saioa Martxeliño Agirrek irabazi zuen (47 birla). Martxoaren 22an, Gipuzkoako txapelketako 7. saioan, Urnietan, 3. egin zuen Martxeliñok (46 birla) eta 4. Imanol Agirrek (45 birla).

Martxoaren 28an, Goierriko txapelketaren 8. saioa izango da Segurako bolatokia, goizez 11:00etatik 12:00etara eta arratsalde 16:30etik 17:30era. 9. eta azken saioa Zerainen izango da apirilaren 4an.

Ur eta hazi bedeinkazioa

Apirilaren 19an, 12:30ean izango da Santa Engrazi ermittan aurtengo ur eta hazi bedeinkazioa. Elizako batzordearen inizatibaz, txu-

kunketa egin zaion lehen ermitta izan da: margotu, argiak berritu eta kanpai-horma ere txukundu diote. Ohitura honi eusten diotenek, haziak poltsetan eraman ordez, xextoetan eramateko deia egin dute.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Rejionalak: Segura 3-4 Antzuola. **Jubenilak:** Segura 3-2 Beraun. **Kadeteak:** Billaona 1-1 Aizkorri. **Infantilak:** Lengokoak 3-2 Aizkorri. **Asteburuan etxean: Infantilak:** Aizkorri-San Ignacio; jaien, 11:00etan.

Labur-labur

● **III.Iparra-Hegoako** informazioa 26., 27. eta 28. orrialdeetan. **Aste Santukoak,** 15., 16. eta 17.etan.

● Zurbano eta Unzurrunzaga kaleetako **argindarren kableak** lur azpitik ari dira bideratzen.

● **Pisu jaurtiketa:** Maite Telleria, pista estalian jubenetako Euskadiko txapel-dun geratu ondoren, estatu mailako proban 5. egin zuen, 10,41m-ko markarekin, bere hoberena. Martxoaren 21ean, Donostian, Komunitateen arteko txapelketan 2. egin zuen eta taldekoan txapeldun geratu zen Euskadikoekin. Apirilean, 4 eguneko konzentrazioa izango du Gasteizen Euskadiko selekzioarekin.

● **Pelota:** Intxaurrondoko torneoan, 2. faseko ligaskan ari dira I. Etxeberria Mikelperizenarekin eta J.A. Honbre Castellanosekin, baikoitza talde ezberdinetan.

● **Aste Santurako txukunketak:** Arboladian, lur berria bota, lehengoa atxurtu eta belar hazia bota dute. Beheko kurutza ingurua eta

Zurbanoneko baratzaren sarrera ere txukuntzekoak dira eta herriko hainbat lorontzitan landare berriak jartzekoak ere bai.

● **Aste Santuaren erakusketa:** Aste Santuko egunetan, udan egin zuten modura, Kultur etxean egun osoz egongo da zabalik erakusketa. Herriko postalak ere ordurako jarriko dira salgai.

● **Koruaren entsaioak:** astelehen eta asteazkenetan izango dira, Elizan, 20:00etan.

● 4 hilabeteko berrikuntzen ondoren, asteburu honetan dira **Antonkalene** berria inauguratzekoak. Bertan, 'Segurarrak kontu kontari' bideoa aurkeztuko da.

● Martxoaren 30ean, 19:30etan Kultur etxean izango da **Txanbolinpe** peñaren aurkezpena. Mutiu, Kuhbauer, Kovacevic eta Gracia etorriko dira. Bazkideak, martxoaren 29an dira Zopajalen bazkaria egitekoak eta ondoren argazkia ateratzekoak Txanbolinpen.

● Apirilaren 4an, 1958an jaiotakoek **kinto afaria** izango dute. Izenak Axkueta tabernan eman behar dira.

● **Pintura erakusketa:** Joxemari Telleria eta Jesus Jauregirena. Informazioa 28. orrialdean.

● **Odol ematea:** aurtengo lehen emanaldia, apirilaren 18an, 17:00etatik aurrera Osasun etxean.

● **Jostungintza ikastaroa:** Udaleko emakumeen batzordeak antolatuta, apiriletik uztailera, asteazkenetan, 14:30etik 16:30era, Txanbolinpen. Izen ematea udaletxean.

Joseba Telleria

ORMAIZTEGI Ormaiztegiko autobusak Frantziako futbol Mundialean

Irizar Kooperatiba Nazioarteko goi mailako ekintza baten antolakuntzan partaide izatera heldu den lehen enpresa da.

Gure herriko Irizar enpresan egindako autobusak, baita entepesa bera ere, behin baino gehiagotan sarituak izan dira. Oraingoan berriz, Irizarrek egungo edozein enpresarentzako saririk preziatuena izan litekeena lortu du, merkatua izugarri zabaltzea.

Hain zuzen Frantziako futbol mundialean gure herrian diseinaturiko Century autobusa izango da garraiorako erabiliko den izarra. Autobus horien erabiltzaileak ez dira nolanahikoak izango, 32 selekzioetako munduko futbolariak ospetsuenak baizik.

Irizarrek mundu mailako ekintza honetarako guztira 52 autobus egingo ditu, bakoitzak 34 milioi inguru balio dituelarik. Century modeloko autobus hauek jatorrizko diseinuaren antzekoak izango dira. Hain zuzen



Kirol talde ospetsu askok erabiltzen dituzte Irizarren Century autobusa. Frantziako Mundialei esker merkatua gehiago zabaltzeko nahi da, batez ere Brasilerara.

380ko zaldi potentzia eta 60 bidaiarientzako lekua izango dute. Hala ere kirolariak erosoago bidaiatu dezaten, eserleku batzuek kenduz mahaia jarriko dizkiete.

Merkatua zabalduz

Autobus hauek guztiak frantziar bezeroen enkar-guz egin dira, guztiak jadanik salduak daude. Eta oraindik garrantzitsuagoa dena, bezeroetatik % 60a

berriak dira eta beronek Frantziako merkatua izugarri zabaltzea suposatzen du. Ekintza honen bitartez Irizarrek 1.500 milioi inguru fakturatuko ditu, hau da Frantzian urte guztian zehar fakturatzea espero duenaren erdia baino gehiago.

Zalantzarik gabe mundial honek gure herriko Irizar enpresari merkatuak zabaltzeko aukera paregabea eskainiko dio. Mundialean

partaide izango diren 32 herrialdeetatik jadanik 22 Irizarrek eginiko produktuen bezero dira. Beraz, gainerako herrialdeetakoek oraingoan beraien kirolarien bitartez gure herrian eginiko autobusez gozatzeko aukera izango dute.

Futbol talderik ospetsuenak

Frantziako Mundialean 32 herrialdeetako futbolariak gure herrian eginiko Century autobusetan ibiltzeko aukera izango badute ere, askorentzat ez da lehenengo aldia izango. Hain zuzen kirolari talde ospetsu ugari baitira aspaldidanik Irizarren bezero, Aston Villa, Erreala, Real Madrid, Athletic de Madrid, Betis, Bartzelona, Celta, Sevilla, Las Palmas, Tenerife, Eibar, Hapoel, Sturm, Bidasoa... Eta laster Bilboko Athletic-ek ere Ormaiztegin eginiko autobusa izango du.

Aitziber Murua

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-AK eta abar

× ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 67 36 11
Faxa: 67 36 55

ZALBIDE SAGARDOTEGIA

Txitxarro eta sardinak parrilan

© 65 21 76

ABALTZISKETA



X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 88 35 81
BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

88 72 21

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

LAZKAO

San Prointzio bezperak ekitaldiz gainezka



Aurtengo festak ere arrimatzten ari zaizkigun honetan, ikusten denez Lazkaoko hainbat taldek ekintza guztiak festa egunetarako ez dituzte utzi nahi eta horrela martxoaren amaiera eta apirila ekitaldiz gainezka datozkigu.

Lazkaoko Udala, Maizpide Euskaltegia eta Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartea dira ekintza gehien arduradunak baina Lazkaoko Ekimenak ere bere aportazioa emateko asmoa du apirilean bi ekitaldi antolatuz.

Kulturaldia

Apirilaren 20tik 24ra burutuko den Kulturaldiak garrantzi berezia du ekitaldi hauen artean, festen aurreko astea girotuko baitu. Jarraian irakur ditzakezue ekitaldi garrantzitsuenen zerrenda.

Apirilak 20, 'Antzarren' VIII. Bertso-paperean banaketa ikastetxeetan.

Apirilak 21, Josu Eizagirreren 'Iparralde: Xiberutik itsasora' diaporama, Udaletxean, 21:00-etan.

Lazkaoko Ekimenaren ekintzak

Apirilaren 18an, larunbata, arratxaldeko 5etan, festaa ospatuko dute plazan, euskal presoek eskubideak errespetatzen eskatzeko. Egun horretarako egitarau zabala prestatu dute, Lazkaoko txaranga, Xapre eta Joxe Antonio trikitilariak, herri kirolak eta abar. Gainera, plazan bertan, Lazkaoko talogileek taloak prestatuko dituzte eta euskal presoek eginiko artisau-lanen erakusketa eta salmenta gunea ere egongo da.

Apirilaren 24ean, ostirala, aldiz, bertso saioa antolatu dute polikiroldegian. Saioa gaueko 10,30etan hasiko da eta bertsolari baten izena oraindik konfirmatu gabe dagoen arren, Xabier Amuriza, Jon Sarasua, Iñaki Murua, Imanol Lazkano eta Jon Maia bertan izango dira. Sarrerak Goierriko hainbat tabernatan jarriko dira salgai. 600 pezetako salneurria izango dute aurrez erosiz gero, egunean bertan erosiz gero berriz 800 pezetakoa.

Apirilak 24, arratsaldeko

3etan San Benito ikastolan antzerkia bertsotan, Goierriko Bertso-eskola-koen eskutik; iluntzeko 8etan, Udaletxean, VII. Gerriko Ikerlan Sariketa-ko liburuaren aurkezpena: Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezolaren 'Joxe Felis Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko Euskal idazle ezezaguna'.

Beste ekintzak

Apirilak 1: Erramun Martikorena eta Andres Monrealen eskutik, 'Dominka 96' ikusentzunezkoa, Udaletxean, 21:00etan.

Apirilak 21: Josu Izagirreren 'Iparralde: Xiberutik Itsasora' ikusentzunezkoa, Udaletxean, 21:00-etan.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*



AMEBI
Sagardotegia

URTE OSOAN ZABALIK
Astegunetan afariak
Astebukeretan bazkari eta afariak
☎ 16 25 23
LAZKAO



BERGARA
Barrenkalea, 35
☎ 76 03 98

BEASAIN
Nafarroa Etorb., 1
☎ 88 48 65

ARRASATE
Otalora z/g
☎ 79 11 72

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**
Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak
Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

TATUAJEAK
TRIBIALAK, LORAK, TXIMELETAK...
Zuk nahi duzun marrazkia
SIBONEY
Deitu ordua eskatzeko 88 15 50ra
M E R K E

Maizpide euskaltegiaren 10. urteurrena

Hamar urte dira Maizpide euskaltegian hasi ginela. Baina, ezin ulertu Maizpideren hamarkada hau aurreko historia ezagutu gabe, beraz, ezin ahaztu gure aurrehistoria ere. Egin dezagun, bada, atzerantz, eta gogora ditzagun, labur-labur bederik ere, Lazkaoko euskalduntze-alfabetatzearen nondik-norakoak.

Hirurogeiko hamarkadan agertu ziren alfabetatzearen lehen zantzuak Lazkaoko Aita Beneditarren inguruan, Elbira Zipitria andereñoa buru zutela. Horrek, dudarik gabe, eman zuen fruiturik. Hala, 1975eko uztailean, I. Uda-ko Euskal Ikastaroa antolatu zuten Beneditarrek eta alfabetatze-ikastaroa eman, guztien buru eta gidari Dionisio Amundarain izan zutelarik.

Alfabetatze-ikastaro hauetan euskara-irakasle mordoska bat sortu zen, Goierri osoan euskalduntzeari ekiteko. Goierrin aspalditik, han eta hemen, ari ziren lanean, eta hau guztia koordinatu eta lana batera egiteko asmotan, 1977an Goiherriko Euskal Eskola sortu zen; barne-araudia ere egin zen. Egoitza nagusia, berriz, Lazkaoko Pax etxean jarri zen, eta bertan



egun osoz lehenengo irakasle liberatua hasi zen lanean. Arratsaldez eta gauetz ematen ziren klaseak Lazkaon, Beasainen eta Ordizian batik bat, baina, baita herri txikietan ere: Ormaiztegin, Gabirian, Seguran, Ataunen, Zaldibian...

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaera aldera, udakoez gain, ikastaro trinkoak ematen hasi ginen, banketxeetako langileei, batez ere. Lazkaoko familietan egiten zuten lo guztiek. Lan eskergaitza, baina harro egoteko modukoa, izan da Lazkao herriak euskararen eta euskaldun berrien alde egin duena.

Piskanaka-piskanaka, eta gau-eskolakoa inola ere ahaztu gabe, ikastaro trinkoen erronkari aurre egin genion, egun osoan euskaraz hitz eginez ahalik eta eperik laburrenean euskara ikasteko aukerari, alegia. Horretarako, azpiegitura egokiagoak behar genituen, eta ondorioz, Gerriko sortu zen. 1982an hasi ginen hilero-hilero ikastaro

trinkoak ematen. Eskolak Areso kaleko etxe-behean ematen genituen, otorduak Pax etxean, bulegoak Gerriko genituen eta lo, berriz, Gerriko egiten zuten ikasleek, Gerriko eta Lazkaoko familietan. HABEren diru-laguntza izan genuen hau guztia aurrera eramateko, eta lazkaotarren prestutasuna milaka euskaldun berriri gure ama-hizkuntzan bizitzen lagun tzeko.

Berehala, ordea, euskaltegi handi baten premia izan genuen. Han-hemenka sakabanatuta genituen zerbitzuak bateratzeko. Horrela, bada, eraiki zen Maizpide. 1988ko apirilean, hain zuzen, hasi ginen martxan. Apirilaren 23an estrainatu genuen handikioro. Hona hemen egun hura oroitzuz Bitoriano Gandiaga poeta handiak eskaini zigun poema eta egun etxearen atarian, zurean dotore landua, denon gozamenarako erakusgai dugu-na:

*Ilargiaren argia
balkoiko kristaletatik*

*gelara sartzen denez,
halaxe hasi zineten,
isil eta gozo asko
gugan euskara pizten.*

*Euskara ez zuen askok
etxetik ateratzeko
hizkuntza-modutzat jotzen;
zuek, ordea, handizki
erakusgarria dela
irakatsi zeniguten.*

*Elbira Zipitria, zuk
bihotza zenion jarri
eta hik, Rikardo Arregi,
gorputza eman hioan;
Euskarari biok egin
zenioten bide ona.*

*Zuek hasi lan argian
saiatu diren guztien
aurrirudi zaretenoi,
eta zuen ondorengo
hainbeste euskalzaleri,
esker on eta ohore.*

Hau guztia oroitzuz, gure Maizpideren X. urteurrena ospatuko dugu, ekintza nagusiak hauek izango direlarik:

● “Maizpide” aldizkaria (6. alea), ikasle eta irakasle on artean egin argitaratuko dugu.

● Halaber, ale berezi bat argitaratzeko asmoa ere badugu. Ale honetan hamar urteotan gurekin eta gure inguruan ibili diren zenbait lagun iritziak jasoko ditugu. Ale biok maiatzaren lehen astean kaleratuko ditugu.

● Maiatzaren 16an, larunbata: Bazkaria eta gauean jaialdia.

Maizpide Euskaltegia

MARTXOAREN 25ean HASI ETA 29an BUKATUKO DA:

III. Iparra-Hegoa Seguran

Herri bera osatzen dugunok, elkar ezagutu, ulertu, osatu eta batu asmoz, Segurako Elorri Kultur Elkartekoak eta Urruñako Berttolikoek zein Iparraldeko zenbait abertzalek antolatutako III. Iparra-Hegoa martxoaren 25ean hasi bazen ere, asteburuan izango dira ekitaldi nagusiak.

Asteazkenean ireki ziren euskal artista garaikideen lanen eta tresna bitxien erakusketa. Atzo, berriz, Seguran garai batean jokatu izan



Iazko Iparra-Hegoako artisau eta nekazal produktuen azoka.

zen eta Iparraldean oraindik bizirik dirauen errebotearen inguruko erakusketa, diaporama eta solasaldia izan zen.

Aurtengorako berrikuntza nagusia, Iparra-Hegoaren inguruan antolatu diren bi erakusketak dira. Ez da,

ordea, bakarra. Jaian, 29an, izango den artisau eta nekazal produktuen azokan ere bada berrikuntzarik.

Euskal sukaldea

Martxoaren 29an izango den artisau eta nekazal produktuen azokan, garai bateko baserrietako euskal su-

kaldea prestatuko da Txanbolinpen. Bertan, lixiba-jotzea antzeztuko da. Honetaz gain, Felix Goiburu gaztai egiten, Xantiago Goiburu eta Joxe Albizu kaltzetagintzan eta Segurako talogileak talogintzan arituko dira.


Herriko produktuak

Herriko produktuen standean, Segurako tarta, Segurako taloak, Ondarreko gaztaia, Ikortako odolkiak, Aldataerdiko ogia eta artopilak, Ermasoko eztia, Kommentuko mojen menbriloa, Antonkaleneko pipar txikiak, Omiñoko arrautzak, oilaskoak eta intxaurrak, Aldaolako indibabak, Zabale Txikiko letxugak, Aldatagoeneko loreak, Barberoneko ukendua, San Jose lantegiko hestebeteak, po-

VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidekin)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babersteke gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.



Iparra-Hegoa futbol partidua iazko martxoan.

rruak, sagarrak eta fruitu lehorrak ere ikusi eta erosi ahal izango dira. Iparraldetik, gaztagileak eta gozogileak etorriko dira. Otatzako sargardoa ere izango da dastagai.

Herriko artisauen artean, Agustin Legorburu eskoara egiten, Antonio Ordozgoiti saskigintzan, Keko Mairoz

egurrezko altzariekin, Juanito Oiarbide pelota-xestoeekin eta Edurne Galparsoro junkozko altzariekin. Hauetaz gain, zapatagileak eta pelotagileak ere izango dira.

Oreinak eta ahuntz ipotxak

San Andres baserriko ahuntz ipotxak eta Beasain mendian jarri berriak dituzten Pagorriko oreinak ere ikusgai izango dira. Baita oreinen produktuez osatutako stand-a ere.

Udazkenean Iparraldean

Hiru alditan Seguran ospatu ondoren, hurrengo Iparra-Hegoa Donapaleun egiteko asmoa da azaroaren 14ko asteburuan.

Eskerrak

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete herriko taberna, Udala eta Kutxari euren laguntzagatik.

Joseba Telleria

Astebururako egitaraua



Martxoaren 27a, ostirala:

18:00etan haurrentzako festa. Martxel magoa eta kale animazioa. Txokolate jana buruhandiak eta erraldoiak txistulariekin. Ondoren Urruñako Ikastolaren eraikuntza sinbolikoa.

19:30ean, Urruñako Ikastolako guraso eta irakasleekin el-karrizketa Kultur etxean.

23:00etan, Euskal kantu saioa, Amaitz

taldeko Joxemi eta Iñakirekin Elorripen.

Martxoaren 28a, zapatua:

16:30ean, Iparra-Hegoa futbol partidua Alustiza futbol zelaietan. Ondoren, Irulegiko ardoa eta mokadutxoak plazan. Kale animazioa, talo afaria eta txaranga tabernaz taberna.

23:00etan, Kontzertu-jaialdia plazan. Etzakit (disco berriarekin) eta Zpeizurdeak. Ondoren txaranga.

Martxoaren 29a, jaia:

10:30ean, txistulariekin goiz-eresia.

11:00etan, nekazal produktuak eta artisauak plazan. Ituren-go joaldunak herrian zehar. Donibane Lohizuneko Begiraleak dantzari taldea.

11:30ean, Iparra-Hegoa pelota partidua frontoi zaharrean: Alfaro eta I. Etxeberría Haritz eta Olatzen aurka.

13:30ean, Gerizondoaren inguruko ekitaldia errebotean. Joaldunak, dantzariak, hitzaldia eta bertsoak.

14:30ean, herri bazkaria, txaranga, bertso eta kantuz alaitua Elorri-berriko etxabeen.

17:30ean, Iparra-Hegoa sokatira plazan.

18:00etan, Mutxiko dantzak plazan.

Bi erakusketa

- **Euskal arte garaikidea:** punta puntako euskal artisten pintura eta eskultura erakusketa. Informazio guztia 28. orrialdean.
- **Tresna bitxien erakusketa:** gaur egun erabiltzen dena duten baserri, etxe eta eliza tresna zaharrak "Kaxinto Antxermonean" (Zurbano 12) egongo dira ikusgai. Martxoaren 25etik apirilaren 5era, egunero 18:00etatik 20:00etara eta zapatu-jaietan 11:00etatik 13:00era ere bai.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea


Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 882007 BEASAIN



IBAI-ONDO

ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g
880543 BEASAIN

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua
Goierri 10 88 61 14 ORDIZIA

Iparraldeko eta Hegoaldeko euskal artista garaikideen lanak erakusgai Seguran

Ipparraldeko eta Hegoaldeko punta-puntako euskal artisten lanez osatutako erakusketa antolatu da, Segurako Elorri Kultur Elkarateak eta Urruñako (Lapurdi) Berttolikoek egin ohi duten 'Iparra-Hegoa' astearen barruan. Guztira 18 artisten lanak bilduko dira. Apirilaren 5era arte egongo da zabalik, Jesus Jauregik Seguran duen arte estudioan.

Joxe Mari Telleria pintore segurarrak eta Seguran bertan bizi den Jesus Jauregi pintore eta eskultoreak izan dute Iparraldeko eta Hegoaldeko artistak elkartuz, erakusketa antolatzeko ardura. Harremana sortu nahi dute Iparraldeko eta Hegoaldeko artisten artean, orain artean behintzat ez omen da eta inolako harremanik egon. Era berean, herritarrei euskal arte garaikideko lanak esanguratsuenak ere ezagutzera eman nahi dizkie. Hasieran uste baino artista gehiagoren lanak izango dira ikusgai Jesus Jauregiren arte estudioan. 18 guztira, "arte garaikide-



ko artistarik garrantzitsuenetarikoa".

Pintura eta eskultura ikusteko aukera izango dira. 5 eskultore etorriko dira: Jorge Oteiza, Nestor Basterretxea, Jose Ramon Anda,

Ramon Karrera eta Oier Villar. Eta 13 pintore: Jose Antonio Sistiaga, Karmelo Ortiz de Elgea, Bizente Ameztoui, Ramon Zuria-rain, Bonifacio Alfonso, Migel Gonzalez de San Ro-

man, Juan Luis Goenaga, Javier Morras, Joxe Mari Telleria, Jesus Jauregi, Jose Luis Zumeta eta hiru Iparraldeko pintoreak: René Paul Gelos, Paule Saulet Eiramuno eta Myriam Amiotzbehere.

Artelanak handi xamarak izango dira ikusgai. "Kalitatea ziurtatuta izango da artelanetan, lan onak ekartzeko eskatu baitiegu", argitu digu Joxe Mari Telleria pintoreak.

Apirilaren 5era arte egongo da zabalik. Arratsaldetan 6etatik 8etara; eta asteburuetan baita 11etatik 1era.



Joxe Mari Telleria eta Jesus Jauregiren erakusketa

Iparraldeko eta Hegoaldeko artisten lanen erakusketa bukatzearekin batera, Joxe Mari Telleriak eta Jesus Jauregik beste erakusketa bat egingo dute. Erakusketa komertziala izango da. Apirilaren 9tik 19ra egongo da irekita, Segurako Aste



Santuko egunak aprobetxatuz.

Pintura eta grabatuak izango dira ikusgai. Guztira 25en bat lan. Gehienak artelan txikiak izango omen dira, baina handixeagoak ere bai. "Txikiak saltzea errazagoa baita, nahiz eta handiagoak gustokoagoak izan".

Jesus Jauregiren arte estudioa oso leku aproposa dela dio Joxe Mari Telleriak, eta promozionatu egin nahi dute, aurrera begira ere beste erakusketa batzuek antolatzeko helburuarekin. Dena den, beste helburu bat ere badu erakusketa: "jendea ohitu dadila artea ikustera", zehaztu du segurarrak.

Erakusketaren ordutegiak honakoak dira: arratsaldetan 6etatik 8etara eta astebukaeretan baita 11etatik 1era ere.

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

LAZKAO GARAJEA

RENAULT

AGENTZIA

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

Sarriegi-Lekuona-Oteiza erakusketa Ordizian

Nikolas Lekuona eta Jose Sarriegi

ordiziarren lanak erakusgai daude, Jorge Oteizarenarekin batera, Barrena kultur etxean, apirilaren 15era arte. 3 artistak gerra aurretik Madrilén elkarrekin izan ziren. Erakusketaren haserarekin batera inauguratu zuten Goen plazan Oteizak Sarriegi, Lekuona eta Yoyesen omenez egindako eskultura.

Bi ordiziarren ibilbidea lehen ere aldizkari honetan emana bada ere, hemen duzue 3 artisten arteko harremanen hainbat xehetasun.

Nikolas Lekuona 1932. urtean egin zen ezaguna, Ordiziako festetan, Sarriegi, Quilez eta Zurutuzarekin batera egin zuten 'Arte Industrial' erakusketarekin.

Lekuonaren lekukotasunaren idatziek diotenez, Oteiza, Sarriegi, Mozos eta Gurrutxaga izan ziren bere arte lagunak. Lekuona eta Sarriegi Ordizian egin ziren lagunak, eta Madrilén jarraitu zuen. Bertan ezagutu zituzten euskal artistak, Jorge Oteiza besteak beste.

Sarriegi Lekuona baino zaharragoa zenez, euskal artisten artean sartzen lagundu zion. 1934an Sarriegi



gi Madrilén pintura ikasten aritu zen. Bera zen pinturara bakarrik dedikatzeko ahalmena zuen bakarra. Zuloagaren eragin handia nabarmena zen bere lanetan, baita Arteta eta Vazquez-Diazena ere.

1931 eta 1933an Oteizak irabazi zituen bi sari bere eskulturekin. Lekuonaren argazkietan Sarriegiren erretratuaren bustoa azaltzen da, Oteizak 1934an Ordizian pasatu zuen udan egindakoa. Dena den, eskultura hau desagertua dago.

Talde honen bilkura tokia Nikolas Lekuonaren lagunak ziren Mari Sol, Nikolas eta Jone Etxeberrria ahizpa beasaindarren Madriléko etxea izaten zen. Sarriegi Jone Etxeberrriarekin ezkondu zen. Etxe horretan bertan sortu zen Kursaalén inaugurazioan elkarrekin erakusketa egiteko ideia.

Lagun talde honetan Euskal Herriaren geroaz kezkatzen ziren. Arte autoknoaren garapenak kezkatzen zituen, beti ere ikonografiaren folklorismotik haratago zihoazen kontzeptuetan oinarrituz.

Nikolas Lekuona

1913ko abenduaren 19an jaio zen Ordizian. Beasaingo 'Hermanos de las Escuelas Cristianas' ikastetxean egin zituen oinarrizko ikasketak. 1929an Donostian jarraitu zituen bere ikasketak, Ordiziatik egunero joanez, Arte eta Ofizioetan matrikulatu zen, aldi berean Aparajadore Eskolan sartzeko bere burua prestatuz. 1932an Madrilén hasi zituen bere ikasketak. Lehiaketa askotara aurkeztu zituen lanak eta baita erakusketak egin ere. 1934an Aparejadore ikasketak bukatu zituen. 1937an hil zen, Gerra Zibilean, bonbardaketa batean.

Jose Sarriegi

1911ko urriaren 20an jaio zen Ordizian. Marianistetan egin zituen lehen eta bigarren ikasketak. 1925ean Ordiziako Arte eta Ofizio eskolan matrikulatu zen. Bost urtera Donostia joan eta bere ikasketak Asensio Martiarenarekin jarraitu zituen. 1931n aipeman berezia eta Donostian Gipuzkoako Artista Berrien X. lehiaketan saria lortu zuen 'El concejo de Gainza' lanarekin. 1934an Madrilera joan zen Lekuonarekin batera eta Oteizarekin adiskide egin ziren. Arte Ederretako Akademian matrikulatu zen. 1935ean ere Gipuzkoako Artista Berrien XI. lehiaketan aipamen berezia jaso zuen.

Gerra Zibilean 'Amayur' batailoian sartu eta Iparraldeko Kanpainan parte hartu zuen. 1937an Santanderreko El Dueso kartzelan sartu zuten eta heriotz zigorra ezarri zioten. Bilboko eta Burgosko kartzeletan egon eta 1939an heriotz zigorra kendu zioten. 1943an aske utzi zuten eta Ordiziara itzuli zen. Gerra ondoko giroa ikusirik, ordea, Bilbora joan zen. Hainbat erakusketa eta lan egin zituen. Arantzazuko gaiari ekin eta absiderako proiektua ere aurkeztu zuen. 1967ko urriaren 12an hil zen Ordizian.

PUB

ASTI

Zaldizurreta kalea

☎ 88 45 06 **BEASAIN**

Garbitasunak

OXEPI

☎ 88 96 67 **ZALDIBIA**

Sagardotegia

aulia

Aulia-enea

☎ 80 60 66 **LEGORRETA**



1897ko Prozesioko soldadu erromatarrak

Segurako Aste Santuko 1897ko soldadu erromatarrak dira argazkikoak. Erromatar jantzi berriak estreinatu zituzten egunekoa. Gaur egun, telak aldatu badira, gainerakoa mantentzen da. Parisen egin zituzten jantziak. Soldadu postu honetan gizonik handienak eta indartsuenak jartzen dira. Paristarrei kapitainaren, Juan Mari Telleria, neurriak eman zizkieten jantzi berriak egiteko. Neurriak gaizki egongo zirelakoan, horrelako gizon handirik izatea ezinezkoa zela pentsatuz, berriz ere neurriak hartzera etorri ziren Paristik. Neurri berberekin itzuli omen ziren Parisa.

ELORRIPE
edaritegia

☎ 80 10 02

SEGURA

Giro
atsegina
eta
pintxo
bereziak

JUANKAR

- * Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- * Parket ezartzeak

☎ 731945 - 939-962850
San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

**EROSLE
GOIKO**

- Ordiziako Gazta Txapelketako irabazlearen gazta
- Etxeko arkumeak
- Bertako haragia

Zurbano, 8 ☎ 80 03 26
SEGURA



KENDU S. Coop. Ltda.

Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan

Industrialdea, z/g
SEGURA

☎ 80 13 40
Faxa: 80 19 05



Luma Gomi

Zabalegi aldea
Zerain (Gipuzkoa)

Tel. (943) 80 01 61
Faxa: (943) 80 15 56


Baserriko Oilaskoa

KALITATEKO
EUSKO
LABELAREKIN



Belardian
aske hazitakoa

Eraman ezazu garantiaren etiketa eta eraztun zenbaituarekin batera



Zenbakiak
egin itzazu
Pryca-rekin
geldituko zara

PRYCA